



Jon Arretxe

# HAKUNA MATATA



GALBURUA



Jon Arretxe  
**HAKUNA MATATA**



JON ARRETXE

# HAKUNA MATATA

*3. argitalpena*

LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO BIZKAIA KUTXA

BILBAO  
1996

*Liburu honen egileak Eusko Jaurlaritzako beka bat jaso dau*

*1. argitalpena, 1991*

*2. argitalpena, 1992*

© LABAYRU IKASTEGIA - BILBAO BIZKAIA KUTXA

Aretxabaleta 1-1. 48010 Bilbao. Tfnoa-Fax: 443 76 84

ISBN: 84-86833-94-9

Lege Gordailua: BI-2448-96

Fotokonposaketa IKUR. 48005 Bilbao

Inprimatzailea: A.G. RONTEGUI, S.A.L. 48950 Erandio-Bizkaia

Diseinua: IKEDER

Azaleko irudia: Daniel Tamayo

# **HARPA LILURAGARRIA**





— 3, Davigdor Road, please.

— Pardon?

— 3, Davigdor Road.

— 3, Davigdor Road?

— Yes, please.

Kotxea martxan ipini eta tren geltokiaren ondoko kalean gora abiatu ginan berehala. Bidean taxista haren entzupidea eskasa izango ete zan itauntzen neutsan neure buruari; izan be, nik hain argi eta astiro ahozkatutakoa berak ulertu ez... Gero ikasiko neban arazoa ez zala ingelesen belarria, nire ahoskapenaren kalitatea baino.

Gizon jatorra emoten eban eta alkarrizketa sortzen saiatu zan bidaiatxo harek hartu eban denbora laburrean, baina nik bere itaunak ulertu ez eta «Sorry?». Berak galdera bigarren edota hirugarren aldiz errepikatu eta nik, bape ulertu barik, jakineko irribarretxoaz edo zalan-tzazko «Yes» batez erantzuten neutsan. Bere aurpegikeran errez igarri neikean ez zala ha berak espero eban arrapostua, baina zer egin? Nire ingeles maila eskasagaz nahikoa zan Brigh-

ton-era hiru hilabete emotera joaten ausar-tzea.

Azkenik etxe handi dotore baten aurrean gelditu eta «3, Davigdor Road» esan eustan. Ekipaia jasten lagundu eta desatsegin keinu bat eginda alde egin eban. Agian propinarik emon ez neutsalako izango zan.

Etxe guztiak antzerakoak ziran parte hare-tan, danak chalet modukoak, familia bakarre-koak, itxuraz behintzat, euren ataka, lorategi eta guzti. Ataurrera hurreratuz txirrina jo ne-ban. Berrogeita hamar bat urteko ule urdineko andra batek urten eustan irribartsu. Gorputz lirain eta gaztaroko edertasun iraganaren zan-tzu nabariak eukazan.

— Hello.

— Hello, Mrs. Needham, I suppose.

— That's right.

— I'm Paul, the new student.

— Come in, come in, please. I was waiting for you. How was your trip?

— Well, not too bad. A little long, anyway. I passed more than twenty hours in the bus and then I had to take the train to come from London to Brighton.

— Ooo, did you come by coach? So, you must be tired. Anyway, I'll first show you

the house and introduce to you the other students. Here they are...

Zorionez oso argi ahoskatzen eban andreak eta astiro astiro, ia era barregarrian. Hoba niretzat, halan behintzat bere berbeta ulertzeko gauza nintzan. A ze poza! Bertan bizi ziran beste bost estudianteak aurkeztu eustazan, hiru ingeles, txinar bat eta japoniar bat. Aurkeztu baino gehiago erakutsi egin eustazan, zeren telebista ikusten egozan eta batek be ez eustan jaramon handirik egin; saio interesgarria egoan, hurrean. Ni baino gazteagoak ziran danak, 17-18 bat urtekoak. Lehenengo laurak unibertsitatera sartzeko preparatzen ebiltzan eta japoniarra, ni legez, ingelesa ikastera joan da egoan.

Gero jangela-egongela erakutsi eustan. Oso handia zan eta satisfazino handiz txoko baten egoan pianoa seinalatu eban. Poztu egin nintzan ha ikustean. Aldez aurretik joan behar neban eskolara idatzi eta pianoa eukan etxea gura nebala esan neutsen. Karrerako azken maila gertatzen nengoan eta ezin neban hiru hilabete bape joteke pasatu.

Logela guztiak goiko pisu bietan egozan. Nire lehenengoan, txinar eta japoniarrarenagaz batera. Hantxe egoan, beraz, etxeko ikutu exo-

tikoa. Etxeko andreak, azkenik, dana erakutsi ondoan, bakarrik itxi ninduan nire gelearn aurrean. Sartu, ohe ganean etzun eta halantxe egon nintzan zati baten begiradaz bertako txoko guztiak aztertuz. Beste ohe bat egoan, ar-mairu bi, mahai bat aulki bategaz, besaulki moduko bat, ispilua, tximinia zuloaren zuta-bea, eta etxe osteko lorategira emoten eban leihoa. Txukuna zan, eta zabal samarra, gusto-ra egongo nintzala pentsatu neban. Ohetik jagi eta mahai ganean egoan oharra irakurten hasi nintzan:

— Meal times: Breakfast from 8 to 9 a.m.  
Dinner at 6'30 p.m.

— In coming phone calls are accepted. To phone out there is a telephone box in Melville Road.

— I will clean and change your towel and sheets. For your own clothes there is a launderette in Dyke Road.

A zorte txarra! Banekian etxekoandra batzuk estudianteen erropak garbitu egiten ebezana eta beste batzuk ez. Niri bigarren taldekoa suertatu jatan. Beraz «launderette»-ra joan beharko. Halakorik sekula egin barik nengoan, baina alde batetik interesgarria izango zala pentsatu neban.

Halako oharrak aurkitzeak harritu egin ninduan, izan be era horretako gauzak ahoz esan beharrean idatziz emotea... Gero ikusiko neban etxearen funtzionamendua antzekoa zala beste arlo askotan. Etxeko andrea edo gizona gosariren batera faltatu behar ziranean, adibidez, ohar bat izten euskuen jangelako mahaiaren ganean hori esanaz, eta bardin beste gauza asko adierazteko: beheko pisuko paperontzian ez zala edari lata edo hanburgesa zorrerik bota behar, azken oheratzen zanak argi guztiak amatatu behar zituala, luzaroei ez egoteko dutxa barruan, ur beroa agortu egiten zala-eta... Harrigarriena zan paper guzti hareek alde aurretik idatzita eukiezala, danak sukaldeko txoko baten pilatuta eta egoerearen arabera bata edo bestea aukeratzen ebela.

Jatorduetara deitzeko be modu berezia eukien, etxe osoan entzuten zan txirrin bat jotzen eben hiru bider eta estudiante guztiak txintxo-txintxo joaten ziran beheko jangelara. Lehengo gauean bertan nik hots ha zer ete zan jakin ez eta apur bat berandu ailegatu nintzan jantokira. Hantxe egozan danak mahai borobilean jarrita nire zain. Mrs. Needham-ek lehengo bere senarra aurkeztu eustan. Nik izena zelan eukan galdetu eta berak, zakar ez, baina apur bat harrituta bezala «Mr. Needham, ob-

viously!» erantzun eban. Gero estudianteen aurkezpen ofiziala etorri zan. Peter, gazteena izanagaitik, talde buru lana betetzen ebana zan, barritsu eta txistezaleena. Steen, danetarik galantena, ulehoria, garaia, beti serio eta ondo jantzita. Chris, isila, suldar asko aurpegian eta oso herabetia. Hiru honeek ingelesak ziran, baina gurasoak atzerrian eukiezan beharrean, Alemania eta Holandan. Heng txinarra ez zan oso barritsua, baina beti ebilen irribarrez, ondokoei kili-kili egiten edo Peter-en txisteei barrreka. Oso ondo egiten eban ingelesez, baina azentu bitxi samarragaz eta niri lehenengotan kostatu egiten jatan ulertzea. Azkena, Shigei japoniarra, oso pertsona bitxia zan. Nik baino are gitxiago ekian ingelesez, etxe haretan hiru hilabete eroan arren; beti burumakur, besteak barreari ekiten eutsienez aho-zabalik alde guztietara begira zer egin jakin barik. Nik neuk be ez nituan txiste gehienak ulertzen, baina irribarre batez disimulatzen saiatzen nintzan sikira. Shigei gixajoak, baten batek zeozer itaundu ezkerro, ikaratan hasi, begiak gora, behera eta aldamenara zorabiatuta amaitzeko moduan eragin eta esanezina baleuka legez erantzuten hasten zan. Batzutan «Yes» huts bat esateko zati dexentean eukiten ginduezan danok berari begira.

Berehala egokitu nintzan etxeko giroan, eta nire ingelesa arin hobatu. Ez neban inoiz beste bost estudianteakaz hartuemon handirik eukiko, baina etxeko andra-gizonak, formaltasun guztiak alde batera itxita, nahiko adikorrak ziran. Afalostean kafea hartzen genduan bitartean alkarrizketa atseginak izaten genduzan musika edota hizkuntza arraroei buruz, nire gustoko gaiak, hain zuzen. Mrs. Needham bibolin jolea izandakoa zan, egongela musika tresnaz beteta eukan eta hizkuntza zaharren ganeko mintzaldi batzutara joaten zan astean behin. Besteon usteak arretaz entzun bitartean marrazki bizidunetakoan gisako ahobeteko irribarrez begiratzen euskun, hagin zuri ondo lerratuak erakutsiz, begiak zabal-zabal eginda. Bere senarra, bitartean, esku biak sabel ganean gurutzatu eta jatorduen osteko asetahun atseginetako itxuraz entzuten ebazan batzuen eta besteentzen eritxiak.

Halako giro patxarosoan egoten zan, beraz, etxe haretan nire egotaldiaren lehenengo zatian. Ordu luzeak emoten nituan pianoa jotzen arratsaldeetan, goizeko klaseak hartu eta gero.

Eskolan be pozik nenbilen. Lehenengo egunetako hoztasun giroa gaindituta apurka apurka ambiente egokia sortuz joan zan estudiantentzen artean.

Nire taldean hartuemon onenak Philip frantsesagaz, Taito japoniar mutilagaz eta Chantal suizar neskeagaz izan nituan. Laurok batera joan ohi ginan bazkaltzen ia egunero, «To a Lestaurant, to eat lice», Taitok esaten ebanez. Benetan irrigarriak ziran bere «R» eta «L» letren arteko nahasketak eta beste hirurok barre algara ederrak ataraten genduzan sarritan ha zala eta. Zorionez umore handi eta pazientzia handiagokoa zan japoniarra eta ez eban hagaitik haserrerik hartzen. Gero badmintonean, ping-pongean edo tenisean olgetan joaten ginan alkarregaz, berak, espezialista zanez, irabazi eta danok pozik. Ikustekoa zan Taitoren betetasun aurpegi borobila gu menperatutakoan.

Launderettera joatea, asteroko zeregin desatseginena izaten zan niretzat. Hasieran kasik abentura bat izan zala esan neike. Ez neukan ideiarik be erropak non sartu behar ziran, ez zein ur tenperatura ipini behar zan, ez zenbat xaboi bota behar zan, ez bueltak eta bueltak emoten ebezan telebista pantailadun beste zulo hareek zer ete ziran...

Lehenengo egunean txanpon solterik euki ez eta han ibili nintzan jendeari «change» eske:

— Can you give me five coins of ten piis?



Jendeak iges egiten eustan bildurtuta legez. Batetik nire itxurea ez zan aproposena, bizarra kendu barik, txandal praka zulodunak jantzita, espartin zaharrak oinetan... Eta bestetik «Can you give me» ez ei zan esamolde egokiena halako eskaerak egiteko. Ganera gero jakingo neban baegoala txirrina launderettean eta ha jo ezkeron ondoko dendako andrea etorten zala «change» edo dana dalakoa emoten. Era berean, gero, beranduegi, jakingo neban ez dala egin behar galtzerdi gorri sendoak beste erropa guztiakaz batera sartu eta «warm water» botoiari sakatu. Gertatu leike, niri gertatu jatanez, handik aurrera arrosa koloreko barruko erropak izatea.

Beraz, halakoxea izaten zan nire Brightoneko bizimodua, goizero eskolara, arratsaldeetan kirolen bat egin eta etxera ikasten edota pianoa jotzen. Gau batzutan pubetara joaten nintzan Jazza zuzenean entzuten eta pinta pare bat edaten. Asteburuetan turismoa inguruko herrietan, golf partida erlaxagarriak... Benetan bizimodu lasai eta atsegina, nire egotaldia urtebetera luzatzea pentsatzeko modukoa, hirugarren hiletik aurrerako egoerearen okertze eta etxe giroaren arrarotze izugarria jazo ez balitz. Oraindino, hain denbora luzea iragan ondoren ezin ditut konprenitu abendu haren hasieratik aurrera gertatutako gauza ulertezinak.

Hain ohizkoa zan halako arratsalde euritsu hotz baten, kalean ibilteko gogorik ez eta ordu batzuk etxean pianoa joten emotea erabagi neban. Bakarrik nengoan, etxeko andra-gizonak kanpoan egiten eben lan eta beste estudianteak eskolan egozan orduan. Berehala iluntzen eban sasoi haretan eta nik, ohi bezala, egongela handiko argi guztiak amatatu, gortina itxi eta piano ganeko lanpara piztu egin neban. Errezago jatan halako giroan ikastea. Arratsalde haretan partiturak hartu eta Chopinen estudio liburua nire aurrean zabaltzeko nintzanean pianoaren aurrekaldeko zur baltzean zerbait bereziaren islada ikusi neban atzeko iluntasunean. Buelta emon eta, bai, hantxe egoan orma kontrako armairu garaiaren ganean harpa txiki bat. Zur marroi ilunez eginda egoan; ez zan lar polita, baina baeukan zelanbaiteko dotoretasuna, nire begirada erakarten eban zerbait berezia. Han egon nintzan begiak bertan tinko zati baten. Gero altzatu, beragana hurreratu eta aulki baten ganean zutitu nintzan tresna ha nire eskuen artean sentitzekotan. Atzamar puntakaz ikutzean halako leuntasun liluragarria igarri neban. Une batez armairu ganetik jatsita bere harien hotsa entzuteko tentazinoa izan neban, baina hobeto pentsatu eta badaezpadan onena lehenengo Mrs. Needhami baimena es-

katzea zala deliberatu neban. Beraz, aukitik jatsi, pianoaren aurrean jarri eta Chopinen hirugarren estudioa, «Tristura», joteari ekin neutsan. Inoiz baino hobeto egin neban.

Gau haretan bertan, etxean danok batera afalosteko kafea edaten gengozala, harpearen gaia ataratea erabagi neban.

— Mrs. Needham, I like very much that harp. When did you put it there?

— It has been there for a long time. I made it myself for my daughter.

— Your daughter? I had never heard about her before.

— She died.

Isilaldia nagusitu zan. Bere alabea aitatu ebanean ezohizko seriotasuna nabaritu zan bere arpegian, tristura keinua igarri neutsan. Bestalde, ni ia seguru nengoan harpa ha ez zala ordurarte armairu ganean egon, berak baietz esan arren. Gero, agian ausartegi, ekin egin neutsan barriz.

— Could I try to play that instrument?

— No! esan eustan legor, beragan sekula ikusi bagako zakarkeriaz. Gero zera erantsi eban:

— You can play the piano, the small and big recorders, even my violin or my guitar, but please, don't ever play, don't ever touch the harp!

Zer esan ez nekiala gelditu nintzan, ez neban inondik inora halako erantzun gogorra jasotzerik espero eta onena hari buruzko beste ezer ez esateari eritxi neutsan.

Abenduko egunak pasatuz joiazan negu antzeko giro hotz eta goibelean. Gero eta goizago iluntzen eban eta ia arratsaldero etxeko epeltasunean babestuta pianoa jotzen orduak emoten nituan. Beti be hantxe izaten neban pianoaren zur baltzean harpa liluragarriaren islada erakargarria. Musika tresna ha han egoala ahazteko ahalegin handiak egiten nituan, baina ezinezkoa zan. Gatx jatan haren presentziaren sentimendua gogotik uxatzea, nire partiturekiko konzentrazioa zeharo galduta neukan. Sarritan joteari itxi, buelta emon eta han egoten nintzan harpeari begira besterik egiteke hipnotizaturik legez.

Arratsalde baten, eutsi ezinik, piano aurreko jarlekutik jagi eta harparantz abiatu nintzan. Aulki baten ganean igon eta armairu ganetik jatsi egin neban tresna ha. Azkenik neure eskuetan neukan eta lasaitasun handia somatu

neban nire barne gogoan. Metro bateko garaiera izango eban, astun samarra zan eta lurrean kontuz ipini ondoan aulkian jarri, belau-nak zabaldu eta nire magalean estutu neban bere hariak laztanduz zelako soinua sortzen zan jakiteko minez... Halakorik sekula entzun barik nengoan, zerbait harrigarria, magikoa zan. Bazirudien nire atzamarrak berez mugitzen zirala, gogoaren aginduen beharrizan barik. Aldi ederra izan zan; doinu batzuk jo nituan sinestezinezko erreztasunaz. Gero baten bat etxeratzen zala nabaritu eta berehalako baten harpea bere lekuan ezarriz pianoa joteari lotu nintxakon barriz be.

Arratsaldeko 6'30etan puntu puntuan, ohi legez, otorduetako txirrinaren hotsa entzun neban eta nire gelan irakurten nengoan liburua mahai ganean lagata eskilaretan behera joan nintzan egun haretako afaria dastatzeko gogoz. Mrs. Needhamen ondoan paratu nintzan mahai borobilean. Portaera bitxia euki eban orduko haretan gure etxeko andreak. Jaten hasi aurretiko jakineko zeremonian nire partea hartzeko ontzi bat pasatzen eustan bakotxean halako irribarre handi bat zuzentzen eustan. Inoiz ez legezko sotiltasun eta leuntasunez mintzatzen jatan eta afariak hartu eban aldian zehar behin baino gehiagotan jabetu nintzan isiluneetan ni-

ri begira ezer esan barik egoten zala. Egoera horretan ustegabeen harrapatzen nebanean nire harridura keinuari atseginezko ala mesfidantzazkoa zan ezin asmatu neikean irribarre zabal batez erantzuten eustan. Nahiko deserosoa zan ha niretzat. Hain nahastuta nengoan, andreak harpa joten ibili nintzala jakingo ete eban susmatzen hasi nintzan, baina halan bazan zergaitik ez eustan ezer esaten? Ganera hori jazo zanean etxean bakarrik izan nintzala koan nengoan.

Zein luzea egin jatan afalosteko kafearen inguruko barriketaldia! Egun haretan inoiz baino gogo handiagoa amaitzeko eta inoiz baino luzeago joian kontua. Azkenik etxeko jaunak eskuak zabalduz eta danoi begira «Well!» esan eta altzatu egin ginan. Mrs. Needhamek gau haretarako haize oso gogorra iragarrita egoala esan euskun. Jangela-egongelatik urten aurretik nire begiak armairu ganeko harpa dotorean pausatu ziran une batez.

Etxekoak goiz oheratzen ziran normalean eta gau haretan be halaxe izan zan. Nik telebis-tako azken barriak ikusi ondoan «The Guardian» apur baten irakurri eta hamabiak aldean nire logelarako eskilarak igon nituan nagikeriaz. Nekaturik nengoan eta loak berehala hartuko nindualakoan sartu nintzan nire oheko

manta-izaren artean. Ez zan halan izango, ez, etxekoandreak esan bezala urtetan ez legezko haize gogorrak jo eban Britaina Handiaren hegoalde osoan. Ni han nenbilen bueltaka deskantsatu ezinik orduak pasatzen ziran bitartean. Halako baten, leiho-ate-tximinia zirrikituetatik txistuka sartzan zan haize zaratatsuagaz nahastuta harpa hari batez egindako soinua entzun uste neban, hiru bider nota bera, pausaldi txikiakaz euren artean. Lehenengotan harritu egin nintzan, baina bigarren eta hirugarren aldiz errepikatu zanean neukan nekea eta asperdura ahaztuta ohe barruan begiak zabaldurik gogortuta legez gelditu nintzan. Dei kutsua hartzen neutsan hari eta behin eta barriz entzuten zan. Azkenik ohetik jagi, zapatilak jantzi eta beheko egongelara harpa jotan nor ete ebilen joateko ausardia hartu neban. Logelako atea zabaldu eta eskilaretan behera abiatu nintzanean ezagutzen ez neban doinu eder eta tristura kutsukoa hasi zan entzuten, nire jakinmina eta larritasuna handituz. Maila bakotxa astiro, zaratarik atara barik jatsiz egongelako ate aurrera ailegatu nintzan azkenik. Atea emekiro zabaldu eta aurrez aurre lanpararen argi izpien artean neska gazte bat ikusi neban harpa dotorea jotan. Nire presentziaz ohartu zanean gelditu, kopeta jaso eta irribarre lilura-

garria zuzendu eustan. Etxekoandrearen begi berdeska bardintsuak eukazan eta zeta finezko soineko zuri transparentea eukan aldean. Nire bildur eta egonezin guztia une haretan bertan keinu miresgarri haren menekotasunaren eraginez deuseztatu ziran. Gero harpea alde batera laga eta jarrera aldatzeke eskuakaz hurreratu eta musika tresnak itxitako hutsunea betetzeko keinuak egin eustazan astiro eta goxo-goxo mintzatzen hasten zala:

— I was waiting for you, Paul. Come in, come in, come with me, please.

Besterik ezinean, inoiz ez bezalako lasaitasun liluragarria nire izate osoaz jabeturik, obeditu egin neban, eutsi ezineko lilura erakargarri batek meneratuta. Beragana ailegatutakoan besoakaz bere magalean estutu ninduan, eta berba ulergatxak marmariatzen zituan bitartean musukatzen eta bere atzamar finakaz harparen hariekiko emetasun gozagarri bardinaz gorputz osoa laztantzen hasi jatan. Nire goxaldia eta kilikadura handituz joiazan eten barik era sinesgatxean eta klimaxera heltzean zorabioak emonda atzerantz jausi nintzan lurrera.



Ohe ganean itzarri nintzan gorputz osoa izerdi eta isuritako haziaz melaturik. Nahastuta nengoan. Ez nekian amesetea izan zan ala zer. Ordurako haize gogorra pasatuta egoan eta komunera joan nintzan garbitzera.

Hurrengo egunean ez neban ezer berezirik igarri etxeko giroan. Harpeak betiko lekuan jarraitzen eban eta danen portaera bardina zan. Izandako haizearen gogorra zan euren mintzagai nagusia. Mrs. Needhamek aurreko eguneko irri-barre misteriotsu bardinaz begiratzen eustan.

Dana ameseta bat baino ez zala izan pentsatu neikean, hurrengo gauetan be gauza bera gertatu ez balitzakit. Soinu dei bardina, doinu eder bardina, saio erotiko bardina eta itzartzeko modu bardina. Azkenerako arduratuta, gero eta makalago eta burua serio nahasten hasita nengoan. Onena nire arazoa baten bategaz komentatzea zala pentsatu neban eta Philip eskolakideari deitu neutsan telefonoz.

— Hello!

— Hello, is Philip at home?

— Yes, just a moment. Philip!!! Phone call for you!

Unetxo baten ondoren nire lagunaren abotsa entzun neban.

- Hello!
- Hello, Philip, I'm Paul, how are you?
- Fine, thanks, and you?
- Not too bad, thank you, anyway, I have a little problem, do you know? I'd like to speak about it with someone.
- I'm ready to help you, of course. We can meet when you want.
- If you have no problem we could hear jazz and drink a couple of pints in «The King and Queen» tonight.
- O.K.! At what time?
- Is it all right at 8'30?
- All right!
- So, see you later.
- See you later.

Halan bada, gau hotz haretan, zortziretan neukan jertse sendoena eta narruzko txamarrea jantzirik etxetik urten eta gelditutako pubera abiatu nintzan. Hantxe egoan jadanik Philip musikarien aurrekaldean txoko baten jarrita jazzaren erritmoari atzamarrakaz jarraituz, bere «Bitter» basokadea ia hutsik. Ni barran pinta bi eskatu eta bere ondoan jezarri nintzan. Hasieran gauza arrunten ganean egin genduan berba. Gero, lehenengo atsedenaldia ailegatu zanean, nire arazoa kontatzeari ekin neutsan:

— Philip, don't surprise because of my question, but do you believe in phantoms?

— What!!!

Istorio guztia adierazo neutsan Philip-i, zelan Mrs. Needhamek harpa bat egin eban bere alabearentzako eta zelan hau gero hil egin zan. Haize gogorra izan zanetik aurrera gauero gertatzen jatan saio guztia zehatz-mehatz kontatu neutsan.

— Philip, I'm afraid I am under the power of the phantom of Mrs. Needham's daughter!!

Nahikoa zan. Isildu egin nintzan. Begi bistakoa zan Philipek ez ebalá esaten neutsanetik txintik be sinisten, errukiz begiratzen eustala esango neuke. Ha dana kontatu izana damutu egin jatan. Burutik nengoala pentsatuko eban harrezkero. Berak eten eban isilunea:

— Well, my friend. Don't worry too much about it. Enjoy yourself in the short time you have to stay in Brighton. O.K.? Let's drink another pint, O.K.? You want lager, don't you?

Gaueko hamaiketan puba itxi ebenean Philipi agur esan ondoan etxerako aldatza igoten

hasi nintzan burumakur. Gaueko hozkirriak edandako garagardo ugariak eraginiko lozorroa arintzen lagundu eustan. Zoratzen ete nengoan itaundu neutsan neure buruari. Gau haretan betiko amesetea errepikatu zan.

Gero eta makalago nengoan alde fisiko eta sikikotik. Burua zeharo nahastuta neukan, sekulako betazpiak izaten nituan goizero eta garagardoa kontrol barik edateari ekiten neutsan sarriegi penak ahazteko.

Afaloste baten, etxeko andreak jakineko irribarre handiaz hurrengo domekan etxean lagunakaz urte amaierako jaia ospatu nahi ebala esan eustan, baina gazte jende gitxi egoteko zala eta ni, nahi baneban, gonbidatuta nengoala eta eskolako lagunak bat eroateko. Berehala Chantal eskolakidez pentsatu neban. Neska polit, atsegin eta barritsuak eta giro haretan maneiatzen jakingo eban. Beraz, «All right» esan neutsan andreari.

Azkenik heldu zan domekea. Jaia eguerdi partean hasteko zan, ordu haretan egozan zitatuta gonbidatu guztiak, baita Chantal be. Puntualitate handiz hasi zan jendea ate joka hama biak aldean. Gizonezko guztiak gorbataz eta trajez, andrazkoak narruzko soinganeko dotoreakaz gehienak, batzuk txakurtxo eta guzti... Nire laguna be berehala agertu zan, zorionez.

Nik giro haretan ez nekian zer egin, nogaz mintzatu edo norantz jo. Chantal heldu zanean, behintzat, pertsona antzeko bi izan ginan guretzako aproposa ez zan jai haretan.

Halan eta guzti apurka apurka ambientean sartu nintzan, batetik edaten nenbilen garagardo ugari eta koktel oso goxo baten eragin lasai-garriagaitik eta bestetik nire land-lady eta land-lord-ak egindako aurkezpenakaitik. Hasieran oso jatorrak emoten eben danak eta bazirudien interes handia eukiela nik esaten neutsezan gauzetan:

— Are you staying for a long time here?

— No, I'm afraid I've to leave Brighton next week.

— Aaaaaaa.....! I see. Are you enjoying your stay here?

— Yes, really, very much, I'm very happy here.

— Ooooooo.....! I see. Are you just studying English or...?

— Just studying, I'm going to take the exam of the First Certificate next week.

— Aaaaaaa.....! I see. I'm sure you will pass it, because your English is very good.

— Well, I'm not so sure.

Gero konturatuko nintzan danak gauza berbera itauntzen eustela eta nire erantzun guztiei jarraitzen eutsien «Aaaaaaa.....!» ustezko interesatu ha formalismo hutsa baino ez zala, itxurra ona eta «polite»-tasuna gordeteagaitik egiten ebela ha dana.

Gonbidatuen artean etxeko andreak bere semea aurkeztu eustan. 28 bat urte izango zituan, ordenadore kontutan nahiko jakintsua ei zan eta neska bategaz Londoneko pisu baten bizi zan. Bere lanaz eta nireaz mintzatu eta gero, bakarrik gelditu ginanean, bere arrebaz itauntzeko abadagunea aurkitu neban. Gaixotasun luze arraro baten ondorioz hil zala ia hiru urte zirala esan eustan, oso ederra zala eta harpea era zoragarrian joten ebala. Ama, heriotzearen ondorioz guztiz jota geratu ei zan eta artean be etsialdi gogorrak izaten ei ebazan hagaitik.

Bere itxuraz galdetzeko nintzanean beste gonbidatu batzuk alkartu jakuzan eta mintzagaia aldatu egin genduan. Lunch ordua heldu zan laster. Mahai borobilean danetik apur bat egoan pikatzeko, pate eta gaztai mota desbar-dinak, entsaladak, fruitu sikuak, mandarinak... Gero kafea eta tea, eta jendea kontu kontari geratu barik. Ni be bai. Mundu osoa ezagutzen eban Wales-eko exekutibo bategaz egon nintzan, Hegoamerika guztian ibilitako landareza-

le batekin, Sussex-eko unibertsitateko irakasle batekin...

Halan pasatu zan denborea eta jendea apurka apurka etxetik alde egiten joan zan. Estudianteak euren logeletara joan ziran. Etxeko andra-gizonak semeagaz eta beraren neskala-gunagaz hango besaulkietan jazarri ziran. Nik Chantal nire gelara igotera gonbidatu neban. Egongelatik urten genduanean etxeko andreak zeozer esateko legez begiratu euskun, baina ez eban ahorik zabaldu.

Nire kuartoan sartu ginanean ohe ganean etzun nintzan.

— This is my room, do you like it?

— Well, it's bigger than mine, but I don't like the color of the walls.

— What about the bed, do you like it?

Edandako alkoholak ausardia nahikoa emoten eustan aurrean neukan ulehori polit hari pentsatzen nengoana argi eta garbi esateko:

— I'd like you to come here, Chantal.

— What?

— Je voudrais coucher avec vous. Is that good French? I mean, I'd like to make love with you. What about you?

Eskua luzatu egin neutsan nire ondora etor-  
ten gonbidatuz, eta berak apur baten dudatu  
ondoren onartu egin eban.

Aldi goxoa izan zan, amodioa egin ondoren  
zati baten ixilik egon ginan batabesteari heldu-  
ta. Gero zera esan eustan:

— This is the first time I make love in En-  
glish, do you know?

Atoan nire gaueroko ustezko amesetak eto-  
rri jatazan burura eta ordurarte izandako lasai-  
tasuna gainbehera joan zan berehalako baten.  
Une batez Chantali ha dana kontatzea pentsa-  
tu neban, baina gogor egin neutsan neure bu-  
ruari eta ixilik gelditu nintzan. Seirak eta lau-  
ren ziran eta ohetik altzatu behar genduan,  
etxeko andreari, egun berezia izanagaitik, afal-  
tzeko txirrina jotea bururatzen bajakon be.  
Chantali etxekoei agur esaten lagundu neu-  
tsan. Mrs. Needham zeharo seriotuta egoan.  
Galduta eukan aurreko egunetako irribarrea  
eta atsegina izaten saiatu bazan be errez igar-  
ten jakon haserrea. Berehala konturatu nin-  
tzan ez jakola bape gustatu gu nire logelara  
joan izana. Chantalek alde egin eban azkenik.

Arduratzekoa zan benetan nire etxeko an-  
drearen itxurea. Gau haretan senar-emazteak



nekatuta egozala eta afaltzeko orduan estudianteoi jakiak mahai ganean lagata, bakarrik itxi ginduezan, eurak deskantsatzera joan zira-la.

Gauean, zertxobait irakurteko ahaleginak egin ondoren, ondoezik, larri, etorriko zana aurreikusiz legez oheratu nintzan. Izan be, inoiz izan dodan gau izugarriena suertatuko jatan orduko ha. Ohi bezala, harpa hotsa entzuten hasi eta eskilaretan behera abiatu nintzan. Doinuak normalean baino astunago, ilunago emoten eban. Azkenean neska gaztearen aurrean paratzean negarretan egoala konturatu nintzan. Ez eustan irribarrerik ez gerturatzeko keinurik egiten, negarra dariola egoan. Begiradea jaso eta:

— You shouldn't have done that. Why did you do it? Why? WHY? WHY?

Behin eta barriz errepikatzen eustan: WHY? WHY? Gero eta ozenago, gogorrago. Gero zutitu egin zan. Peneak jotako begiak gorroto itxurea hartu eben eta berdeska kolorea galdu-ta zuritu egin ziran. Arpegi ederra izandakoa bildurgarri bilakatuz joan zan, azalean zimur-rak agertu eta ulea urdindu. Ni izoztuta legez nengoan, zirkinik be egin ezinean. Harpea jaso

eban erreztasun harrigarritz esku artean buru ganera eta hurreratzen hasi jatan keinu mehatxugarritz gero eta oihu handiagoak eginaz. Harpea nire bururantz jasten ikustean begiak ikuskizun ikaragarri haren aurrean lausotu eta konortea galdu neban.

Egongelako tapiz ganean etzunda itzartu nintzanean etxeko jauna eta estudianteak inguruan niri begira erabat harrিতuta egozan, eta nik ez nekian zer esan.

Nire ondoan, lurrean, harpa dotorea zeharo apurtuta egoan. Mrs. Needham arineketan etorri, egoerea ikusi eta deiadar haundi bat eginaz bere logelarantz itzuli zan negarretan.

Hurrengo goizean bertan egin neban alde etxe haretatik. Gauzak bildu, motxilan sartu eta triste eta nahastuta, kanpoko aterantz abiatu nintzan. Etxeko jauna etorri jatan agurtzen. Mrs. Needhamen faltea botaka eta zorabioak ebilela esanaz eskusatu eban. Keinua serioz eskua emonaz agur esan eustan eta etxe aurrean itxaroten neukan taxian sartu nintzan.

— To the train station, please.

**PEI-PEI**



Trenak frenatzean egin eban zarateak iratzarri egin ninduan bapatean bazkalosteko lokuluxkatik. Nire goiko literatik jatsi eta leihotik begira egoan Wu-Chun-Lin-i Shangaira ailegatzeko zenbat falta zan itaundu neutsan. Hiru bat ordu, erantzun eustan bere ingeles traketsean.

Hard-slipper kategorian biajatzea ideia ona izan zan. Soft slipper garestiegia zan eta Hard-seat lar deserosoa halako bide luzea egiteko. Sei litera egozan gelatxo baktxean; inongo ate edo mugarik ez eukien, ez euren artean, ez pasabideagaz. Honek jendearekiko hartuemonak errazten ebazan eta giro polita egoan gure artean. Beijing-etiko bidaia luze harek eroandako hogeï bat ordu hareetatik batzuk beheko literetan edo pasabideko jarleku txikietan jazarrita emon genduzan barriketan edo alkarregaz komunikatzeko ahaleginetan behintzat. Gehienbat Wu-Chun-Lin-ekin mintzatzen nintzan, ingelesez zeozer ekian bakarra bera zan eta; baina bere alabatxoia eta batez be ondoko agure bi oso interesatuta egozan nire bizitzaz

eta lagunaren itzulpenen bidez behin eta barriz itauntzen eusten nongoa nintzan, zenbat urte neukan, ezkonduta nengoan, zergaitik nenbilen bakarrik, nire ogibidea zein zan... Panpina baten modukoa zan umeak, bestalde, behin konfidantza hartu ezkeron nire ondora etorri, altzoan jarri eta bere atzamartxoakaz arpegiko, bularraldeko eta hanketako bizarretatik tiratzen eustan; gero bere aitaren azal fin soila lantzantzen eban desbardintasun nabarmena adierazo nahian. Zenbakiak txineraz behin eta berrero esaten eta errepika erazoten eustazan, bere aitak, agure antioju borobildunak eta haingbako burusoilak irribarre egiten eben bitartean. Nire izena, txineraz, Yua-Ha zala esan eusten.

Tren geltokian geratu eta berehala kanpoko umeak gure leihoetara arineketan urreratzen hasi ziran otzaretan eukiezan lau arrautzadun boltsak, sagarrak eta beste jaki eta edari batzuk eskeiniz. Ordurako osterara be gosetuta nengoan, aurretik jandako arroz egosia, haragi zati eta beste osagarri desatseginago batzukaz hornituta, dastatu ondoren. Horregaitik, arrautzak hartu nebazan yuan baten truke. Wu-Chun-Lin-ek, fisika irakasle ei zanak, ea New York-en halako lau arrautzak zenbat balio daben itaundu eustan eta nik ez nekiala, New York Europatik,

nire herritik, urrun samar egoala, baina garestia-  
go izango zirala, seguru. Ez zirudien lar konfor-  
me geratu zanik erantzunagaz eta handik piska-  
tera barriz ea zenbat balio dauen New York-etik  
Txinarako hegazkinak.

Arrautzak jan ostean agure antiojudunak  
mahatsa eskeini eustan. Apur baten dudatu  
ondoren onartu egin neban eta oso pozik para-  
tu zan. Nik burua makurtuz «Xie-xie» esan eta  
elastiko hutsean egoan beste agureak barre al-  
gara jatorra egin eban begitarte zimurtuz eta  
geratzen jakon hagin pareira erakutsiz.

Bero egoan han, treneko termometroak ho-  
gei eta hamar gradutik gora markatzen eban.  
Gainera han danak erreten eben, osasunerako  
ona zalakoan, ondorioz giroa nahiko kargatuta  
egoala. Hondakin guztiak leihotik botatzen  
ebezan, nik agian arrazoi bagako lotseagaitik  
boltsatxo baten gordeten banituan be. Ez eu-  
kien ezelango arazorik sekulako ahopats zara-  
tatsuak eta ttua botatzeko. Ez eustan ardura,  
aste batzuk neroazan Txinan zehar ibiltzen eta  
ohituta nengoan ordurako.

Nire egunkarian lerro batzuk idazteko mo-  
mentu egokia zala pentsatu neban. Kuadernoa  
eta boligrafoa hartu eta leihotik ondoko jarleku  
txikian paratu nintzan nire bidaikideen harri-  
durazko begiradapean. Berehalako baten pila-

tu jatazan buruan ordurarte Txinan zehar izandako esperientziak. Beijing aldean pentsatu neban gehienbat, Beijing zoragarrian. Harresi handiaz akordatu nintzan, jendetza izugarria barrizatutako zati laburrean eta bakardade infinitoa gainerako guztian. Txinarrak harro-harro esaten eusten iretargitik ikusi daitekean monumentu bakarra dala. Era berean Tiananmen enparantza munduko handiena dala esaten eben. Udako jauregiaren bakeaz be gogoratu nintzan, Uri debekatuaren edertasun majikoaz, Zeruko tenpluaren perfekzinoaz... Bitxi gehiegi uri bakar batentzako.

Baina ha pasatuta egoan eta orain biztanletan Txinako handiena zan Shanghai-rantz ninoian, Shanghai mendebaldeturantz, Shanghai modernu eta industrialerantz. Ez neban gauza handirik espero beragandik; egia esan, ez nekian ezta uri ha bisitatzeko zergaitik aukeratu neban be. Agian nire moduko bidaiarientzat ohizko bisitaleku zalako, edo agian holangoetan, gitxien espero dozunean, beti ustegabeko sorpresa atseginen bat sortzen dalako. Herriaren izenak berak zerbait berezia, erakargarria eukan eta nik ezin neutsan uko egin harek nigan sortzen eban jakinminari.

Halako pentsamenduetan murgildurik trenaren berezko mogimenduan, gero eta filosofi-



koago bihurtzen joian letra zirriborratuen jarduna eten egin eusten neska batzuren abotsak. Garbitzaileak ziran eta ni han jarrita traban nengoan. Beraz, altzatu eta alde egin behar izan neban. Gitxi falta zan Shanghaira ailegatzeko.

.....

Geltoki barruko erlojuan seirak ziran. Arin ibili behar neban ostatu barik ez geratzeko. Txinan lan egiteko eukien modu bereziagaitik askoz gaxagoa zan hotela arratsaldean lortzea goizean baino. Halan izango ete zan bildur nintzan. Nire paperetan begiratu eta «Pujiang hotel» aurkitu neban zerrendako lehenengo. Motxila astuna lepoan hartu eta kanpora autobusen geralekuaren bila. Zirriparra haundia egoan kalean, jende mordoa lurrean jarrita geltoki aurreko lautadan, beste asko oinez gora eta behera, txirrindulariak, kotxeak, autobusak, atso zaharra mapak eskeintzen, taxi gidariak euren kotxeetan sartzera gonbidatzen... Hasieran nahastu samar nengoan norantz jo erabagi ezinda, hogeita hamabostgarren trolebusa bilatu behar neban, baina non? Halan nengoala «Can I help you?» abots salbatzailea entzun neban. Mutil gaztea zan, hamasei bat

urtekoa; bere ama izango zan begirada apaleko andra bategaz joian. Nire arazoa azaldu neutsan eta «Follow me, please» esan eustan, eurrek be bide ha hartu behar ebela eta hotelaren aurrera eroango ninduela.

Autobusa hartzeko Txinan lehenengo aldiz gitxi gora beherako jende ilara ikusi neban. Beraz, ez genduan bultzaka eta kolpeka sartu beharko, ohi legez. Bigarren txandan barruan gengoan. Mutil gaztea ez zan isiltzen, ingelesa ikasten ziharduela eta oso pozgarria zala berarentzako atzerritar bategaz mintzapraktika egin ahal izatea, gura izan ezkerro berak eroango ninduala han emon behar nituan egun guztietan alde batetik bestera uria ezagutzeko... Larregi eritxi neutsan eta hurrengo egunean baietz, baina besterik ezetz. «Only one day?» esan eustan tristeturik legez. Azkenik heldu ginan hotel ingurura, eskua emon eta biharamunerako arratsaldeko lauretan hantxe bertan gelditu ginan. Bere amak ordaindu eustan txartela.

Autobusak itxi ninduan lekutik kanalaren gaineko burdinazko zubia zeharkatu behar neban hotel aurrera ailegatzeko. Berehala hasi nintzan «Change», «Change» eskeintzak entzuten. Lehenengoa sekulako trabesti itxurako gizon batena izan zan. Zeharo harritu nintzan

eta Shanghai zinez desbardina izan behar zala pentsatu neban.

Hantxe aurrean neukan «Pujiang hotel» karte-  
la, ostatu izan ezik beste edozein gauza emoten  
eban etxe urdinska zahar handi haren ataurre gai-  
nean. Luxuzko beste hotel baten alboan egoan,  
bertako irudi tipikoa dan marroi motz koloreko  
«Shanghai mansions» izugarri altua. Barrura sartu  
eta mostradore osteko gizon gazteari ea logela  
librerik eukien itaundu neutsan. «Meio, no loom»  
erantzun eustan interes handirik erakusteke. Ea  
non bilatu ahal neban eta ez ekiala, ondokoan  
beharbada. «Mansions»-en suiteak bakarrik gel-  
ditzen ziran, hirurehun F.E.C. gau bategaitik! Ni-  
re paperen artean begiratu eta Hankou kaleko  
apopilo etxean saiatzea erabagi neban. Ibilaldi-  
txoa baegoan, baina onena oinez joatea zala eritxi  
neutsan. Gero eta astunago egiten jatan motxila  
hartu eta aurrera egin neban bero kiskalgarri ha-  
retan nire mapa apurtuaren laguntzaz. Noizbait  
be heldu nintzan; nire oharren arabera obretan  
kainamuzko andamioz josita egoan etxe ha izan  
behar zan. Sarreran aulkietan jarrita egozan gizon  
biei itaundu neutsen eta «No loom, no English»!  
erantzun era desatseginean. Apur bat ekin eta  
«Meio»! baino ez ekien esaten. Han ez egoan ze-  
reginik; zeharo nekatuta arrastiri sargoritsu hare-  
tan etsita nengoan. Nire burua gau ha emoten

lorategiren baten ikusten nebanean, «Can I help you»? entzun neban barriz be.

Dotore jantziriko hogeita hamar urte inguruko gizon irribarretsua zan. Narruzko zorroa eroan eskuan eta fidagarria zirudien. Gura izan ezkerro hotela bilatzen laguntzeko gertu egoala esan eustan. Nik banekian azkenean dirua edo zeozer eskatuko eustana bere laguntzaren truke, baina momentu larri ha ez zan aproposena yuan batzuren gorabehereagaitik zalantzatan hasteko. Beraz «O.K.» izan zan nire erantzuna.

Iluntzen hasita egoan lo egiteko lekua bilatzeari ekin geuntsanean. Leku ugaritan saiatu ginan, baina alperrik, batzutan beteta egozala, bestetan txinarrentzako ostatuak bakarrik ziralako... Azkenean «New Asian» izeneko hotolean sartu ginan. Goiko pisura bialdu ginduezan. Han igogailu sarreraren aurrean zutik gizontxo bat egoan txukun baino txukunago jantzita, ulea atzerantz orraztuta, zimur bagako alkondara zuria eta identifikazio txartela argazki eta guzti bular aldean. Nire laguntzailearen ezaguna izan behar eban, alkarri egiten eutsezan agurren arabera. Han lo egiteko lekurik ez egoala, baina ondoko mahaitxoan eukan telefonoa beste ostatu batzutara deitzeko erabilteko baimena emon euskun keinu serio batez. Nire laguna deika hasi zan eta ni, hango

aire egokituari esker apur bat zuzpertia, motxila lurrean itxi eta kakanarru haren portaera aztertzeari lotu nintxakon. Benetan komikoa zan. Ispilu handia eukan bere aurrean eta une batez be ez eutsan ixten bere itxurearen dotoretasuna gordeteari. Gorputza ondo tente, mihinagaz halako klaskada bat behin eta barriz egiten eban bitartean orraziaz ulea atzera bota, alkondarako zimurrik txikiena be txukundu, bere identifikazio txartela agirian egoala ondo ziurtatu eta holakotan ebulan. Oso inportante sentituko zan. Ez zan konturatu nik begiak denbora guztian beragan jarrita neukazala, berak bereak ispiluan tinko eukazan eta. Lantzean behin beheko partean eukan teontzia hartzen eban, belaunak ezertarako be makurtu barik, eta duintasuna ezelan be galtzeke mermelada gordetekoan antzekoa zan poto haren estalkia zabaldu, zurrutadaxoa hartu, barriz gorde eta ahoan apur baten dastatu eta erabili ostean irunsi egiten eban likidoa onespenekin eginez. Hoteleko apopiloren bat etorten zanean eskilaratik edo igogailutik, atzerritarra bazan agur jatorra egiten eutsan eta txinarra izan ezker bere paperak serio-serio aztertu ondoren buruaz oneritxia emoten eutsan eta pasatzen laga.

Luzaroan egongo nintzan gizon kurioso haren portaerari begira nire laguntzaileak, dei asko eginda, zerbait topatu ebala esan ez baleust. Uri erdialdean ezinezkoa zan ezer aurkitzea eta aireporturako bidean egoan estudiante egoitza moduko batera joan behar genduan. 70 F.E.C. gau bakotxa, O.K. Hortaz, gizontxoari eskerrak emon, bostekoa luzatu, eta kalera joan ginan taxia hartzera.

«Sift guest house» aldea leku apartatu eta iluna zan. Ikastetxea edo ei zan urtean zehar. Uri erdialdeagaz autobusez komunikatuta baegoan behintzat. Niretzat, nengoan moduan, edozein leku izango zan berebizikoa. Neska gazte irribartsu batzuk egozan sarrera mahaian eta gelako giltza emon eusten berehala. Nire laguntzaileak atzetik jarraitu eustan, biok logelara sartu eta orduan ezinbestean espero nebana hasi zan. Erdi negarrez, dirurik ez ebala nahi, baina hozkailua erosteko F.E.C., turistentzako dirua, behar ebala eta ea «change» ona egingo neutsan. Nik ohean etzutean baino ez neban pentsatzen eta berehala heldu ginan akordio batera. 100 F.E.C., niretzat hoteletan eta bidaietan erabilgarria zana, emon neutsan eta berak niri 120 R.M.B., txinarrentzako dirua, gainerako leku guztietan erabili ahal nebana. Tratu txarra zan niretzat, kaleko merkatu

baltzean 100-180 trukea errez lortu neikean, baina egin eustan mesedean pentsatuz ez neutsan buelta larregirik emon. «Thank you» esan eta alde egin eban. Beranduegi zan jantokian ezer eskatzeko eta neukazan gaileta batzukaz konpondu nintzan. Gela txukuna zan, telebista eta guzti. Baebilen mamarru bat edo beste, baina hori normala zan han. Dutxa hartu eta oheratu egin nintzan berehala.

.....

Goiz samar zan ate joka hasi ziranean. Artean be erdi lokartuta ez dakit «aurrera» ala zer esan neban eta hiru neskatxa gazte sartu ziran gela txukuntzeko asmotan. «Shall I clean your room now?» buruz ikasitako esaldia errepikatzen eben behin eta barriro nire komentarioetatik ezertxo be ulertzeke. Azkenik keinuen bitartez bost minutu itxaroteko ulertaraztea lortu neban. Bederatziak ez ziran artean. Aurpegia garbitu, jantzi eta jantokira joan nintzan gosaltzekotan. Zer eta zelan eskatu jakin ez eta azkenean zopa txikia ataratzeko esan neutsen. Ontzikada galanta ekarri eusten haragi zati eta eten bagako espageti hari luze-luze bakar batez lagunduta, goilarea eta makil-txoak. Tresna hareekaz espagetia ganoraz eba-

gi ezinda nenbilela zarata handiak atara nituan eta mahaia nahiko txarrituta itxi neban, baina areto erdi huts haretako beste mahai baten barriketan egozan sukaldari itxurakoak harridura izpirik ez eben adierazo. Garagardo epel haundiari azken zurrutada emon eta kalera.

Goiz haretan bertan erosi behar neban hiru egun geroago Cantonera bueltatzeko tren txartela, ezer barik geratu nahi ez baneban. Izan be, traba handiak izaten ziran Txina osoan zehar garraio txartelak eskuratzeko. Gehienetan hiruzpalau egunez itxaron behar izaten zan uri baktotetik urten ahal izateko.

Autobusean sartu nintzan Shanghai erdialdera joateko. Zenbat eta herrigunetik hurrago jende gehiago sartzen zan, bultzaka, kolpeka, ahal bezala, eta neska gazte izaten ziran kobratzaileak oihuka esijitzen eutsen danei pagua. Geralekuetan baten batek ordaindu barik alde egin nahi baeban kobratzaileak eta gidariak autobusa bertan laga eta galapan urtetan eben iruzurtzailearen atzetik.

Goiz osoa emon neban hara eta hona txartela lortu arte eta halan heldu jatan aurreko egunean geratutako mutilagaz alkartzeko ordua. Bakarrik ibiltea gurago neban, baina hartutako konpromezua bete behar.



Hantxe egoan Pujiang hotelaren aurrean itxaroten dotore jantzita. Bere aldean arlotea emoten neban nire praka labur urratu eta kirol elastiko izerdituagaz. Eskua emon eta «Follow me, please».

Erreka ondoko kaletik aurrera eroan ninduan. Besoan zapi gorria eta eskuan kolore bereko banderatxoak eukiezan atso-agure trafikiko ordenatzaile hareekaz fijatu nintzan eta berak herriarentzako lanean jarraitzen eben jubilatua ziralaz azaldu eustan. Alde zaharrerantz abiatu ginan. Hango kale estuetan jende mordo ebilen hara eta hona oinez nahiz bizikletaz, azoka giroa egoan. Gero «Yu-yuan» parke ederra ikustera joan ginan. Leku interesgarriak ziran danak, baina gure artean komunikatzeko arazo handiak geunkazan eta ni ez nintzan lar gustora sentitzen gidari moduko mutil haren atzetik denbora guztian. Berak zeozer igarri, antza, eta euri zaparrada hasi zan momentuan bertan «I must go» esan eustan. Eskua emon eta handik ni bakarrik urteteko gauza nintzala ziurtatu ondoren galdu egin zan kale eta jende artean. Zuzpergarria izan zan niretzako. Inguuru haretan apur bat gehiago ibili ostean, gose-tuta nengoanez, hain ospe ona eukan «Peace» hoteleko jantokira afaltzera joatea erabagi neban.

Etxe handi dotorea zan. Jende guztia ederto jantzita, atezainak, igogailua... Azken pisuan egoan jangela. Gora heltzean ustegabekoa, sarreran egoan neska panpoxa txukunak ez nengoala han afaltzeko «properly dressed, sorry» esan eustan ia damuzko keinu batez. Hango arduraduna izango zan gizona, ordea, ez zan hain era onean etorri nigana, marmarrean eta nire arropa zarpailei sinalatuz baino. Alde egi-teaz beste aukerarik ez neukan eta kaleko euripera urten neban haserre eta goseago.

Handik ur, Beijing-lu eta Sichuan-lu-ren arteko kale kantoian egoan jatetxe handi itxura apaleko baten sartu nintzan. Beste batzuk itxitako hondakinen artean jarri behar eta karta ekarri eusten. Alferrik, dana bertako hizkuntzaz egoan. Altzatu eta mostradore baten atzean egozan arroz platerkada eta entsalada antzeko hareetarik eskatu neban. Nire aurreko ontzitik batek daki zenbatek erabilitako zotz pare hartu eta jateari ekin neutsan, botila bat piji u epel ondoan neukala. Dana iruntsi ondoren ahozabalik geratu nintzan nire aldameneko txinar biri sukaldetik langostino mordoa eta bixigu antzeko arrain haundi bat atara eutsiezanean. Konturatu egin ziran, hurrean, nire harriduraz, baina nire disimulozko irribarreari berehala erantzun eutsien jatortasunez eta

agur beroakaz. Zarata handia eginez hasi ziran jaten, ni euren ondoan nengoalako zelanbaiteko atsegina adierazteko legez, nik uste. Kamareroari papera eta boligrafoa laga eta platerkada hareen izenak idazteko esan neutsan. Beste baten itzultzekotan egin neban alde.

Apur baten Nanjing-lu-ko erakusleihoak begiraten egon eta gero hotelerantz bueltatzea pentsatu neban. Autobusa guztiz beteta egoan, betiko legez, baina zenbat eta aurrerago joan jende gitxiago gelditzen zan. Halako baten ahots goxo bat entzun neban:

— You can seat down here.

Neska gazte polita zan, ule laburrekoa, irribartsua. Beijing-etiko treneko ume-panpina etorri jatan akordura bere begiak ikusita. Haren ondoan jezarri nintzan eta berbetan hasi ginan. Ingelesezko irakaslea zan. Gauza asko kontatu eustazan denbora gitxian, baita niri buruz itaundu be. Bakarrik nenbilela esatean:

— So, you don't have a guide!

Baieztapena baino gehiago eskaintza izan zan ha. Ezetz, gidaririk ez neukala esan neutsan eta gura eta ahal baeban berak erakutsi

ahal eustala hango ingurua. Poz handiz onartu eban. Geraleku berean jatsi ginan autobusetik. Hurrengo egunean ez eukan lan egin beharrik eta Suzhou izeneko herri eder bati buruz egin eustan berba. Hara joatea erabagi genduan. Goizeko zortzietarako gelditu ginan nire hotelaren aurrean eta alkarri agur esan aurretik:

— Excuse-me, what's your name?

— You can call me Yua-ha. It's my chinese name, I think. And yours?

— Pei-pei —irribarrez.

«Pei-pei», lehenengo zatia bigarrena baino ozenago, berak esan bezala, errepikatzen neutsan neure buruari logelarako bidean. Kostatu egin jatan gau haretan lokartzea.

.....

Bapatean esnatu nintzan hurrengo goizean iratzargailua entzun be barik. Izan be ia zortziak ziran jadanik eta ni ohean. Neukan arropa garbiena presaka jantzi eta antxintxika jatsi nituan ostatuko eskilarak. Han egoan Pei-pei irribartsu itxaroten. Egunez eta soineko txukun haregaz aurreko gauean baino are ederra-go emoten eban. Berehala abiatu ginan auto-

busa hartzera. Zhongshan parkean jatsi eta hamahirugarren trolebusa hartu genduan. Zoritarrez tren geltokitik kilometro batera edo argindarra joan egin zan eta hantxe gelditu ginan danok gora begira itxaroten. Bederatzi t'erdietako tren hartzekotan onena azken zatia oinez egitea zala pentsatu eta halaxe egin genduan. Erreztasun harrigarriaz lortu zituan tikeak Pei-peik Shanghaiko geltokian hainbeste lehiatila eta txinera hutsez idatzitako letrero artean.

Bidaiak hartutako ordu pare berehala pasatu jatan. Berba asko egiten eban eta nik lilurata entzuten neban bere abotsaren musikaltasuna.

Noizbait be heldu ginan Suzhou eta goiza uriaren iparraldea ikusten emon genduan. Lehenengo Beisita torre-pagoda haundia bisitatzera joan ginan. Goiko pisuetatik herri osoa ikusi zeitekean. Itxura polita eukan, baina inguruko industria ugariak hondatu egiten eban apur bat, baita kontraste handia sortu be bere parke naharoakaz eta zelanbait Veneziaren tankera emoten eutsien kanalakaz.

Bertako te-etxean egon ginan jezarrita zati baten etenbagako euriak eta gorputz izerdiak bustita, ondoko agureen jakinminezko begiradapean.

Gero,apur bat atertu ebanean Zhuozheng parkea eta historia museoa ikusi ondoren Guanqian kalera abiatu ginan bazkaltzeko asmotan. Xuan-miao-guan tenpluaren aurreko jatetxe baten ataurrean sorgin itxurako andra nagusi bat deiadarka hasi zan. «Seat down, please! Seat down, please!» menua eskuan eukala. Hantxe jarri ginan. Atso barritsu begikoa zan hango nagusia. Ez zan ixildu be egiten, ingeles ulertezina egin arren:

- Whelaleyouflam?
- From Europe.
- Iulof? Iulof!

Nigaz ulertu ezinean Pei-peiri itauntzen eutsan gauza piloa nitaz, ea bakarrik nengoan, ezkondua nintzan, seme-alabarik neukan, nire adina, nire beharra zein zan... Ohizko guztia herrialde haretan.

Edateko zer nahi genduan galdetu ebanean nik «pijiu» esan neban eta andreak lotsabagako barre algara zaratatsua egin eban bere hagin urri erdi ustelak erakutsiz. Jatekoa neskeari itxi neutsan aukeratzen, eta zoparen ondoren okela zati goxoak atara euskuezan saltsa min bategaz. Badaezpada be Pei-peiri ixilpean txakurkia ez ete zan izango itaundu

neutsan. Berak ezetz, txakurkia negu partean jaten dala gehienbat, haragia samurrago eukiten dabela orduan. Hong-Kong-en Txinan txakurrak, sugeak, laba-mozorroak eta matxinsaltoak jaten zirala entzun eta gero edozein gauza espero neikean han.

Arratsalde partea mendebaldeko parkeak ikusten emon genduan. Liu-yuan eta Xi-yan leku zoragarriak ziran. Jendea inurrien moduan ebilen zokomoko guztietan. Pei-peiri komentatu neutsan apur bat harrituta nengoala zenbat txinar talde ikusten ziran argazki makina onakaz halako lekuetan. Hareek ez zirala txinarrak, japoniarrak baino, erantzun eustan. Pixka bat lotsatu egin nintzan.

Shanghaira bueltatzeko ordua ailegatu zan. Tren geltokira itzultzeko autobusera bultzaka sartzerakoan atea oina kanpoan harrapatu eustan. Pei-pe barrurago egoan eta ni jendar-tean zapalduta nengoan. Ez nekian nire egoerea zelan adierazo eta azkenean keinuen bidez kobratzailea oharterazo, autobusa geratu eta atea barriz zabaltzea lortu neban. Barre asko egin eben danak. Txinarren naturaltasuna eta diskretotasun eza zan gauza erakargarrienetakoa.

Hurrengo goizean Pei-peik lan egin behar eban eta arratsaldean operara joateko gelditu

ginan. Baneukan gogoia honeetariko bat ikusteko. Neskeari paper baten «Arratsaldeko operarako sarrera bi, mesedez» txineraz idazteko esan eta nire gain hartu neban tikeak erosteko ardura. Nire Shanghaiko azken arratsaldea izango zan, baina ez neban horretan pentsatu nahi.

.....

Hurrengo goizean egin neban lehenengo gauza «Peace» hotelera joatea izan zan. Han «China daily» ingelesezko egunkari txikia erosi eta bertako ikuskizun zerrendan opera bat aukeratu neban, nengoan lekutik hurren egoan antzokikoa hain zuzen. Pei-peik idatzitako oharragaz ez neban eragozpen handirik izan arratsaldeko tikeak berehala erosteko.

Handik aurrera goiz osoa neukan libre gauza barriren bat ikusteko, baina ez nekian zer egin, zelan emon denbora. Orduak lehenbailehen pasatzea nahi neban, Pei-peigaz alkartzeko momentua ailegatzeko irrikitan nengoan.

Huangpu erreka bazterreko pasealekuan ibili nintzan untzien mogimendu etenbakoari begira. Lehenengo egunean hango atso zahar bati yuan baten truke erositako pastel zatiaren doublea prezio erdian emon eustan beste saltzaile



batek. Brazalete gorridun atso batek gizon bati zarataka ziharduen beronek ttua lurrera bota eta oinagaz ez zapaltzeagaitik. Handik hur hain ohizkoa zan jendearen arteko borroka bat kale ertzean: Gizon batzuk bero-bero eginda eztabaida bizian eta beste mordo bat inguruan begira. Bitartean alde guztietatik bizikleta eta jende uholdea gora eta behera eta «change» eskeintzak sarri. Giro haretatik iges egin eta nire egunkarian ohar batzuk idazteko asmotan handik autobusez urrundu eta «Fuxing» parke-ra joan nintzan. Ez zan beste munduko gauza, berdegune txukun batzuk, arboladi bat edo beste eta jarlekuak tarteka. Honeetariko baten jazarri nintzan eta kuadernoa eta boligrafoa motxilatik atara. Handik bost minutura, lehenengo berbak idazten hasita nengoala, aurrez aurreko jarlekuan ikastun itxurako mutil gazte betaurrekodun bat paratu zan. Agirian egoan nigaz berba egiteko gogotan egoana, eta nik begirada nire kuadernotik ez jasotzeko ahaleginak eginagaitik gura ez nebana jazo zan:

- Hellooo! Hellooo! May I speak to you?
- Well, speak to me —esan neutsan, etsita.
- So, you must be American.
- No, I'm not American, I'm from Europe.

— Aaah! Which country of Europe are you from? Is English your first language?. How old are you? Are you travelling alone?...

Eta jakineko itaun guztiak bata bestearen orpotik kateatuta. Gero bere bizitza kontatzen hasi jatan, ingelesa ikasten ebilela eta oso aukera gitxi eukala mintzapraktika egiteko, batez be atzerritarrakaz ahalegintzen zala hitz egiten, egunen baten Ameriketara joango zala ikasten jarraitzera, han baeukala arreba bat jatetxe baten lan egiten...

Atsegina izaten saiatu nintzan, baina ez nengoan han irauteko moduan, eta al bait arinen «I must go» esan neutsan.

Orduak joan, orduak etorri, azkenean heldu zan Pei-peigaz alkartzeko unea. Zitaleku zan Yu-yuan parkera abiatu nintzan eta hirurak baino lehen ailegatu arren hantxe egoan bera ordurako. Ondoko osinaren gainean eraikitako te-etxera sartu ginan. Beheko pisuan te-ontzia eta katiluak hartuta goiko pisura igon genduan. Leiho ondoko mahai borobil txiki baten ondoan kokatu ginan. Giro atsegina egoan han. Dana oso ondo apainduta, zurez, Txinako lanpara tipikoak tarteka. Gure aurrean musikari taldea egoan bertako tresnakaz doinu tradizionalak jotzen. Tea amaitzen jakunean zer-

bitzaria etorten zan gure ontziko bedar multzoari ur bero barria eranstera. Eta halan gura beste aldiz. Giro haretan eta halako laguntasunagaz luzaro egongo ginan han, baina operara berandu ez ailegatzez gero goiz afaldu behar genduan. Egun bi lehenago egondako jatetxera eroan neban eta berari ezer eskatzen itxi baino lehen zerbitzariari nire oharren artean txineraz idatzita neukazan platerkaden izenak erakutsi neutsazan. Bost minutu geroago hara non agertu zan ontzi handia bete langostino ekarrela, baita arrain handia be. Edateko «pijiu» epe-la, jakina, hotzik ez egoan eta. Pei-pei harritu egin zan zelan izan nintzan ni bakarrik ha dana eskatzeko gai. Barre egin genduan biok.

Opera ikustera joan ginan gero, hari opera deitu ahal bajakon. Nik beste gauza bat espero neban. Verdi edo Wagnerren lanak entzuten ohituta ha beste mundu batekoa zan. Ikusleak guztiz normal jantzita egozan eta euretariko batzuk edozein momentutan eta edozelan zaf-la! hantxe botatzen eben ttua danon mustur- ren aurrean inongo lotsa barik. Aktoreak oso jazkera berezi eta dotoreakaz egozan jantzita, aurpegiak margotuta edo mozorrotuta, hori zan interesgarriena, baina ez eben kantatu egi- ten, oihukatu baino, eta holan denbora guz- tian. Orkestra hiruzpalau lagunek bakarrik

osaten eben bertako musika tresnakaz, nik dozenaka musikajole dotore ikustea espero nebala. Benetan ha ustegabe haundia zan nilako mendebaldar musikazale batentzat. Ez neban, baina, txintik be atara ekitaldi guztian eta amaitutakoan gustatu egin jatala esan, nire baitan zuzperdura handia sentituagaitik.

Shanghaiko kaleak ilunpetan egozan antzokitik urten genduanean. Renmin enparantza aldera joan ginan paseiatuz, urrats bakotxean pena handia sentitzen nebala hain aldi ederraren amaierara gerturatzen ginala somatzean. Plaza haretan danetariko ikuskizunak egozan, burruka simulatuak, joko bereziak, musika joleak, kantariak... Halako taldetxo baten gizon batek bibolin antzeko hari luze eta oihartzun kaxa txikiko musika tresna herrikoia jotzen eban bitartean, beste hiruk txandaka zeozer kantatzen eben sentimentu handiz. Euretariko batek emakume abotsa imitatzen eban. Beste egoera baten barregarri emongo eban, baina han seriotasun osoz egozan bai bera bai eta entzule guztiak be.

Ondoko Renmin parkean sartu ginan gero. Leku haundia zan, iluna; alde izkutuenerantz hurreratzean harridura handiz Txinan lehenengo aldiz ikusi nituan bikoteak bedartzan etzunda edo jarlekuetan jezarririk iretargiaren argi-

tan besarkatuta eta musuka, oso era bitxian, batere mogitzeke, lotan bailegoz. Nik be eskuakaz Pei-peiren lepagaina laztanduz musu emon neutsan hango ilunpetan. Ezpain alkar-tze huts ha inoizko musu samurrenetarikoa izan zan. Bera harrimenez begiak zabal-zabal eginda aho erdi irekiaren barruko hagin zurita-suna erakutsiz begira gelditu jatan dardarka. Barriro musukatu neban besarkada estu baten lotzen ginala. Gero arbolen itzalpean babestuta pasealekuan eskutik helduta ibili ginan berba egin barik.

Hotelerako itzulbidean gitxi mintzatu ginan. Ea Txina gustatzen jatan galdetu eustan eta nik baietz. Laster Ameriketara joatekoa zala ikastera eta ea nire Europako herrialdea handik oso urrun egoan...

Azken urratsak oinaze baten modukoak izan ziran. Han, hotelaren sarreran egin genduan azken agurra eta Pei-pe betiko galdu zan kale ilunaren itzal artean.


.....

Oso goiz altzatu nintzan hurrengo egunean. Motxila prestatu behar neban, gero tren hartu Cantonera joateko, handik Hong-Kongera, bertan hegazkinean sartu eta etxera. Bidaia eder haren azken egunetan nengoan.

Denbora sobran ailegatu nintzan geltokira eta umore txarreko emakumezko tike pikatzaille lodiak ez eustan artean nire trena egoan lekura hurreratzen itxi eta han itxaroteko esan. Bizkarra zutabe baten kontra ezarririk lurrean jarri nintzan eta egunkaria eta boligrafoa atara azken gogoetak bertaratzeko asmotan. Handik apur batera nekazari antzeko agure burusoil begirada apaleko bat ondo ondoan jarri jatan eta zer eta zelan idazten neban begiratzen geratu. Berehala hasi zan txineraz parra parra berbetan. Nik ulertzen ez nebala adierazota be bardin jarraitzen eban. Sargori egoan han eta kamiseta erantzi neban; berak be gauza bera egin eban irribarrez. Begiko egin jatan. Banana bi atara nituan motxilatik eta bat eskeini neutsan. Hartu egin eban eskerrak emonez. Gero berak boltsatik ataratako piper berde bat eskeini eustan. Apur baten dudatu ondoren onartu egin neban eta «Xie-xie» esan. Barre zaratatsua eragin eutsan horrek.

Ia ordua zan eta umore txarreko zaindaria pasatzen itxi eustan. Tren luze haretan nire bagoa aurkitu ondoren tokatzen jatan literan egokitu nintzan bidaikideen begiradapean. Urteera txistu sarkorra entzun zanean etzun eta lo egin nahian begiak itxi nituan.

# **GALATA TORREA**





— Hello, Murat! Murat? Is Murat at home?  
— Murat England, Murat England!, erantzuten eban abots zalantzatsu batek telefonoaren bestaldean.

Berba honeek nahiko izan nebazan Murat nire laguna osterara be Ingalaterran, alkar ezagututako lekuan egoala ulertzeko. Beraz, Istanbulen bertako lagun batez ibilteko berebiziko aukerea bertan behera gelditu zan. Izan be, beranduegi bialdu neutsan Murati eskutitza Gabonetan bere herrialdea, bere uria hain zuzen, bisitatzera joango nintzala esateko.

Bakarrik konpondu beharko neban, bada. Jadanik han nengoan eta ez egoan bueltazetik. Gau haretarako hartutako hoteleko arduradunari informazio turistikoa non lortu nekean itaundu eta kalera urten neban. Hozkirri egoan arratsalde haretan, negua izanagaitik Mediterraneoko herrialde baterako uste ez bezalako eguraldi hotza zan ha.

Plano batzuk eskuratu nebazan Mezkita Urdinaren ondoko informazio bulegoan eta le-

henbailehen hotelera itzuli nintzan hango ego-  
taldiaren lauzpabost egunetarako plana egite-  
kotan. Gauza asko ikusi behar egun gitxitan.  
Istanbulen giro handiena uda partean egoten  
dala neukan entzunda, baina nik neguko fres-  
kura eta lasaitasuna gurago nebazan. Ilunabar  
ederra egoan Beyazit plazaren inguru haretan.  
Hurrengo goizerako Topkapi jauregia bisita-  
tzea erabagi neban.

.....

Goizeko bederatzietarako banengoan jaure-  
gi eder haretako lorategien artean paseiatzen.  
Bertako gauza erakargarrienetarikoa museo-  
geletako bitxi liluragarriak izan ziran; danetik  
topatu zeitekean han, urre eta munduko harri  
baliotsuenez egindako tronoak, sastakaiak, ge-  
ziak, idunekoak, eskuturrekoak... Begiak euroi  
atxekita gelditzen ziran berez eukien distira zo-  
ragarriari iges egin ezinik. Denborea ohartu  
barik pasatu zan hainbeste gauza ederren arte-  
an.

Eguerdi aldean Topkapiko beste marabilia  
ikustera joan nintzan, harema, alegia. Taldeka  
sartu behar zan nahitaez, ordu jakin batzutan  
eta hizlari baten gidaritzapean. Aishe zeritzon  
begirada sakoneko neska baltzeran batek

eroan ginduazan pasabide eta gela ugarik osatzen eben laberinto moduko haretan zehar. Behin baino gehiagotan izan neban gogoa jende multzo haretatik itzurita ni bakarrik zokomoko ilun guzti hareen artean galtzeko, baita saiatu be, baina Aishe eta bere laguntzaileak erne ebiltzan eta ez eutsien inori horretarako abagadunerik eskeintzen.

Ordubete baino gehiago emon genduan han barruan batera eta bestera, eta barrero kalera urtekeran ha izan zan ustekabea, edurra maramara eta zelai eta teilatuak zuritzen hasita! Gose nintzanez kebab gozoa dastatu neban handik gertuko taberna gisako baten. Ez eban atertzen. Bertatik ondo ikusi neikean Santa Sofia mezkita izugarri handiaren gorritasunak edurrak eransten eutsan zurtasunarekin sortzen eban kontraste harrigarria. Halako irudia zenbatek izango ete eben begitandurik, ohizkoa izango ete zan itauntzen neutsan neure buruari. Ezetz eritxi neutsan bertako biztanleen janzkerak aztertu ondoren. Inork ez eukan ezta zira triste bat be. Danak joiazan betiko ehun sendoko jakakaz babesturik, halako egoeretakako prestaturik egongo ez balira legez.

Alemdar kalean behera jo neban gero, Eminou portu alderantz. Hango partean giro berezia egoan. «Urrezko Adarra»-ren ertzean, Is-

tanbul zaharra eta barria lotzen dituen Galata zubiaren ondoan arrain eta frutu saltzaileak, zapata garbitzaileak, sekulako jendetza atzera eta aurrera... Harrigarriena, dana dala, arrainogibitate egileak ziran. Ur gaineko txalupa baten barruan balantzaka itzelezko zartagin gisako ontzi baten arrainak olio ugaritan frijitu, ogi tartean sartu eta kaian zain eukiezan erosle naharoei luzatzen eutsiezan geratu barik, uraz bestaldeko Galata torrearen silueta ia zeharo estaltzen eben edur maluta handiei inongo jaramonik egiteke.

Aldameneko Yeni mezkitarantz jo neban apur baten aterperatzeko asmoz. Sarrerako agureari artulezko txanoa erosi neutsan eta zapatak erantzi ondoren barruko otoitz egileei begira egon nintzan luzaroan hango lasaitasunaz inguraturik.

Urten nebanean aterri egoan, oskarbi, kalezelai-teilatuak zuriturik eta eguzkiaren azken printzak zeruan. Ankara kalean gora abiatu nintzan presaka sei minaretedun Mezkita Urdina ederren ei egoan une zehatz horretan ikustearren. Leku eta momentu hari buruz entzunda eta irakurrita neukazan goraipamen guztiak egia hutsa ziran. Zuriz estaldutako lorategien atzean zerurantz orratz zorrotz legez zuzentzen ziran minareteak mezkita hari emo-

ten eutsien irudi paregabeko ha betiko geratu zan nire gogoan.

Haren ondoren tapizak ikustera eroan nahi ninduen mutikoei jaramonik egin barik hotel aldera jo neban afaldu eta deskantsatzeko asmotan.

.....

Hurrengo goizean Bazar Nagusi ospetsura joan nintzan. Sakelak diruz husteko leku ederra zan ha, erosketen eta erosleen paradisua. Edozein aldetara begiratuta gauza tentagarriak ikusten ziran, mota guztietako tapizak, bitxiak, plater distiratsuak, narruzko txamarrak, teontziak, eskuturrekoak, sastakaiak... Eta ha gitxi bazan denbora guztian egoan mutil astunen bat norberaren atzetik bitxikeriaren bat saldu nahian.

Ordubeteren buruan, ez dakit zelan, boltsaz kargatuta nengoan. Hotelera itzuli behar izan neban pisua arintzera. Gero, hain giro trinkoan ibili ondoren, erlaxatzeko turkiar bainua hartzea ideia ona zala eritxi neutsan.

Divan Yolu kaleko Çemberlitas bainu-etxera sartu nintzan. Eskilara batzuk jatsi behar ziran areto handi batera heltzeko. Han jendea barriketan tea hartzen egoan bainua hartu eta

gero erlaxatuta, masaiariak besoak gurutzaturik aspertu itxuraz bezeroen zain. Bertako arduradunak ea saio osoa gura neban itaundu eta alde zurretik ordaindu ondoren nire aldagelako giltza emon eustan. Han ohe txiki bat egoan, pertxa batzuk erropak eskegiteko, sandalia zahar pareak eta garri bueltan estalgarri bakar gisa ipinteko zapi latz koloregabetu bat. Atea ondo itxi eta gero giltza eskuan hartuta bainu eta masaiak gelarantz abiatu nintzan arduradunaren atzetik. Egurrezko ate heze astun bat bultzatu eta komunaldea izango zan hats higuigarriko gela bat zeharkatu genduan. Beste ate bat pasatu ondoren areto borobil handi baten sartu ginan. Sauna eskerga baten modukoa zan, sekulako umeltasuna egoan. Goiko aldeak kupula itxurea eukan, leiho ni-miñoak osatzen ebezan beira sendo zatiak tarteka. Dana marmol zuriz eginda egoan. Aretorearen erdian metro erdiko altuerako oktogono bat. Beronen ertzetan jendea etzunda deskantsatzen edota masaiak hartzen. Albo-ko hormetatik iturri ugari urtetzen eben, plastikozko plateren laguntzaz ur hotz eta beroa nahastuz gorputza freskatzeko. Nik, hangoen ereduari jarraituz, tarteka urez busti eta etzun egiten nintzan marmol gainean barriro izerditu arte.

Ia ordu erdi emon neban holan; desidrataturik geratuko ete nintzan bildurrez nengoala nire masaialaria agertu zan. Hasiara hasieratik egin jatan desatsegina. Lodikote samarra zan, koi-petsu itxurakoa, biboteduna danen moduan, ezpain handien arteko ahozuloa erdi irekita beti. Begi ingurua moretuta legez eukan, margoturik balego bezala eta ez eban era normalean begiratzen, ikusiko ez banindu legez begiratzen eustan. Ahozpez ipinteko esan eta nire gorputza zanpatzen hasi zan. Atzamarrak indar handiz sartzen ebazan nire giharren artean oinaze oihuak atarateraino. Gero nire alde gurienak igurtzitzean «Good? good?» itauntzen eustan. «Good service, good taxes» errepikatzen eban, eskupeko ona jasotzeko esperantzatan, antza. Masaiakaz amaitu eta gero besotik helduta iturriak egozan aldera eroan eta hatsa zerion espartzu zakar bat eta xaboia hartuta zarrantzatu egin ninduan goitik behera.

O.K. esanda saioa amaituta egoala adierazo eustan. Urtekeran beste langile batek painu legorrak ipini eustazan garri bueltan eta buruan eta aldagelara deskantsatzera joateko esan. Ohe ganean etzunda koka-kola handi bategaz egon nintzan ordu erdian edo. Egia esan, oso ondo sentitzen nintzan, zeharo erlaxaturik hartutako jipoiaren ostean. Hurrengo egunean errepikatzea erabagi neban.

Gero Galata torreko jatetxera joan nintzan bazkaltzera. Bazkaria bera baino hobea handik goitiko ikuspegia izan zan. Istanbul barriaren muino baten kokatua, bertatik uri zaharra primeran ikusi zeitekean hain ikutu majikoa emoten eutsien mezkita dotore ugariez zipristinduta: Santa Sofia, Mezkita Urdina, Suliman, Yeni...

Torrearen azken pisuan night-cluba egoala ohartu nintzan eta hango arduradunari itaunduta, gauean, afariagaz batera, era guztietako ikuskizunak egozala jakin neban: Musikea, herri dantzak, folklorea... eta «Sabel dantza», Istanbulera etorri aurretik hain sarritan entzudako sabel-dantza sonatua. Erreserbea egin neban dudatu barik.

Bederatzietan hasiko zan dana. Bazkalosteko haretan gorputzak eskatzen eustana lotalditxoa zan eta hotelerantz abiatu nintzan ordu batzutan lo egin ondoren gauerako berradoretuta egongo nintzalakoan.

.....

Gogo handiz jagi nintzan zazpiak aldean. Erropa onenak jantzi eta taxi baten bila urten neban kalera. Goizegi heldu nintzan Galata torrearen ingurura, eta denborea emoteko hain



ospe txarra eukan Taksim aldeko kobazuloak ikusiz atzera-aurreratxo bat egin neban. Bakarrik ibiltea, batez be neskontzat, guztiz arriskutsua ei zan. Mesruti yet kalea zeharkatu neban alderik alde eta ez neban ezer bildurgarriarik somatu, ordu haretan behintzat; cabaret edota diskoteka antzeko batzuk besterik ez. Agian gauerdi partean desbardina izango zan.

Bederatziak ziran Galata torrearen azken pisura joateko igogailuan sartu nintzanean. Eskailera espiraletik be igon zeitekean, baina pisu larregi zan. Night-clubean sekulako giroa egoan. Alde baten eskenatokia, eta honen inguruan, torrearen egitura zilindrikoa guziz ondo aprobetxatuz, mahai-aulkiak. Ia guztiz beteta egoan dana ordurako. Zerbitzariak txoko bateko mahai txiki batera gidatu, kandela bat izetu eta lehenengo aperitiboa atara eustan.

Berehala hasi ziran ikuskizunak. Lehenengo, jatekoak zerbitzatzen hasteaz batera, musika lasaia izan zan. Gero turkiar folkloreko ekitaldiei ekin eutsien.

Bertako doinuak, dantzari taldeak, kantuak... hain jaki bikainakaz eta zerbitzariak behin eta barriro beteten eustan edalontziko ardaoaren eraginagaz nahastuta inoiz baino hobeto sentitu arazten eusten. Benetan entusiasmaturik nengoa, ia ia neure onetik urten-

da, giroa berotuz joian neurrian alaiago... Eta orduantxe hainbeste espero nebana hasi zan. Bapatean, musikaren erritmoa biziagotu zanean, neska dantzari batek salto egin eban eskenatokira. Erropa gitxi eukan, bere ipurtalde eta bular naharoak ozta-ozta estaltzeko bestekoa. Eskuetan kriskitin moduko batzukaz hots erritmikoak egiten ebazan. Ez zirudien turkiarra, ez zan azal baltzeranekoa eta ule horia eukan. Tintatua izan zeitekeala pentsatu neban. Bere sabelari musikaren erritmoaren arabera egundoko trebetasunaz eragiten eutsan gorabehera-kanpora-barrura... Zorabiatu rik legez nengoan, begiradea bere zilborrhari jarraituz alden du ezinik. Benetan horditu rik nengoan, erdizka edariagaitik, erdizka giroagaitik. Txalo egiten neban dantzariak halantxe eskatzen ebanean.

Begietan zerbait berezia antzemoten jakon. Egingo neban neuri begira egoala zeozer esan nahian bezala. Ezin fidatu, baina, nire orduko zentzumenen zorroztasunaz. Gero mahairik mahai ibilteari ekin eutsan. Dantzan paratzen zan talde bakotxaren atzean eta argazkilariak erretratoa egiteko aprobetxatzen eban. Ohizko trikimailu zaharra. Handik ordu erdira argazkiak errebelatuta itzuliko zan prezio onean sal-

tzera. Nire atzean paratu zanean oilo narrua ipini jatan bere eskuakaz bularra laztandu eustanean flasharen argiagaz batera. Alkondarako poltsikoan, baina, zerbait sartu eustala konturatu nintzan. Bai, paper zatitxo bat neukan gordeta. Zer ete zan ha? Errondea amaitutakoan urten egin eban kanpora eta momentu bateko argi amatatzea aprobe txatu neban nire mahaiko kandlearen laguntzaz paperean ipinten ebana irakurteko:

— HELP!

Zer esan gura eban harek? Zeharo nahasturik nengoan hagaitik danagaitik. Aulkitik ahal bezala altzatu eta komunera abiatu nintzan, aurpegia ur hotzaz bustita apur bat bizkortu eta ideiak ordenatzeko asmoz.

Ispilu aurrean nengoala, bertako isiltasunean leku zaratatsu batetik lasai batera pasatzen danean belarrietan sortzen dan ohizko zurrumuru sakona jasz, bapatean, ateari bultzada emonaz, neska dantzaria sartu zan.

— Lagundu, mesedez, lagundu!

— Zer? Nor zara zu? Zer pasatzen jatzu?

— Idoia daukat izena, eta...

— Idoia? Baina nongoa zara! Zu... Amese-  
tan nago!

— Ez da amesetea, mesedez, lagundu he-  
mendik urteten, akabatu egingo nabe beste-  
la, gero azalduko deusut dana, orain ez da-  
go astirik. Goazen, arin!

Eskailera espiralean behera arrapaladan  
abiatu ginan urteerarantz. Zoritxarrez, azke-  
nurreko estaiako erropa-gordelekuko langile-  
ak gu ikusi eta deihadarka hasi zan, goikoak  
gure igesaz oharterazoz. Izugarrizko zalaparta  
eratu zan berehalako baten. Gure atzetik  
urrats askoren zaratak entzuten ziran eta beste  
batzuk igogailuko atea ukabilka jotzen eben oi-  
hu eginaz batera. Ez neban ezer konprenitzen.  
Ni hara folklorea mirestera joan eta gauerdian  
bertako dantzariagaz igesi, turkiar amorratu  
piloa gure atzetik harrapatu eta jo eta txikitu  
nahian geunkazala. Ez zan ha pentsatzen gel-  
ditzeko une aproposa, baina. Idoiari, lehen pi-  
suko neska errezeptionista nahastuaren begi-  
radapean, sarrerako pertxan baten batek  
lagatako jakea gainetik ipini eta kalera urten  
genduan presaka. Zorionez Istanbulen zerbait  
ugari badago taxiak dira eta orduantxe handik  
pasatzen zan baten sartu eta urrundu egin gi-  
nan torre ingurutik jarraitzaileak ikusi barik.

Hotelerako bidean ez genduan berbarik egin badaezpadan. Neskearen gorputz dardarak somatu neikeazan nire baitan, ez dakit hotzaren ala bildurraren ondorioz. Nik neure aldetik mozkorra zeharo kenduta neukan halako esperientzia gogorra bizi izan ondoren eta ardura-tzen hasita nengoan, gertatutakoari lojikea bilatuz, buruan ideiak bueltaka erabilten nebazan bitartean.

Hotelera ailegatu ginan noizbait. Zorionez, sarrera mahaiko langilea erdi lokartuta egoan eta ez zan gure etorreraz jabetu. Azkenik nire logelara sartuta, zuzperduraz hasperen eginez, neskea bertako besaulkian jezartera gonbidatu neban.

- Guzti hau azaldu beharko deustazu, ezta?
- Egia esan, ez dakit nondik hasi.
- Zulako neska batek holako leku baten zer egiten dauen esanez hasi zeintekez.
- Gogoz kontra nago hemen, bahituta.
- Bahituta? Nork bahituta? Noiz? Zelan?
- Istanbulera turista gisa etorri nintzan orain urte bi. Lar ausarta nintzan, behar baino gehiago; ez eustan ardura kalean baka-rrik ibilteak egunez zein gauez, edozein aldetan. Gau baten Taksim aldeko pub antzeko baten nengoan kopa bat hartzen eta

komunera joan nintzan. Txarri madarikatu-  
ren batek jarraitu egin eustan, antza, eta  
atzetik oratuta lotan itxi ninduan drogaren  
bategaz. Hantxe amaitu zan nire askatasuna  
eta nire amesgaiztoa hasi.

— Sineskaitza! Baneukazan halako istorioak  
entzunda Marokko, Turkia eta holako he-  
rrialdeei buruz, baina asmakeria hutsa zira-  
lakoan nengoa.

— Halaxe uste neban nik be niri neuri jazo  
arte.

Isildu egin ginan une batez.

— Oso txarto pasatuko zenduan.

— Ezin dozu imajinatu be egin. Danetik egin  
behar izan dot. Honeentzako emakumeok  
animaliak baino gitxiago gara. Dantzatzer-  
a, alternatzer-  
a, euren kapritxo zikin guztiak  
betetzer-  
a behartu nabe higuingarriok meha-  
txupean eta drogak hartu erazoz. Ez dot go-  
goratu be egin gura.

— Lasai egon, orain txarrena pasatu da.

— Ez dakit zelan eskertu nigaitik egin dozun  
guzti hau.

— Oraindik ez da amaitu. Zu Turkiatik ata-  
ratea falta da. Nik badaukat hegazkin txartel

bat etzirako, baina ez da nahikoa. Ez dozu pasaportetik izango, jakina.

— Kendu egin eusten.

— Zeozer pentsatu beharko dogu bihar. Orain onena atsedean hartzea dozu. Ohean egin daikezu lo. Ni besaulkian moldatuko naz. Hor dozuz dutxa eta komuna behar izan ezkeru. Goizean zuretzako erropa batzuk erostera joango naz. Ezin zara itxura horregaz hortik zehar ibili.

.....

Hurrengo goizean, Idoia ohean lotan lagata, jantokira jatsi nintzan goiz samar gosaltzeko asmotan. Turkiar tea dastatzen neban bitartean buruan hamaika buelta emoten neutsan sortu barri jatan arazoari. Zelan atara neska ha ia batere ezagutzen ez neban herrialde harrigarri haretatik? Ezin ezer asmatu.

Urtekeran, ordurarte hain tratu atsegina emon eustan errezeptzinoko Mohammedi zeozer zuzurlatzea pentsatu neban urtenbideren bat aurkitu nahian. Ez neutsan ezer argi esan, egoera hipotetikoren bat planteiatu soilik, baina bere begitartea ilundu egin zan bapatean, zeozer susmatu baleu bezala eta «Sorry, sir», «I don't understand, sir» izan ziran bere erantzun

bakarrak. Damutu egin jatan harengana jo izana, eta urtenbidea beste alde batetik bilatu beharko nebala jabetu nintzan.

Lehenengo zeregina Idoiarentzako erropa barriak erostea zan eta ez eustan lan makala emon betebeharrak, saltzaileei ez bait jaken buruan sartzen zelan zeitekean mutil bat ibiltea neskentzako jantziak eta soinekoak erosten neurria ez ezer zehatz jakin barik. Azkenik, erosketa batzuk eginda, hotelera itzuli nintzan.

Sartukeran Mohammedek ohi ez bezalako seriotasunaz begiratu eustan niri eta eskuetan neroazan paketei. Gelara heldu nintzanean Idoia esna egoan, artean be ohean, nire liburu eta cassette batzuk ondoan eukazala. Gauean baino are politago agiri zan bere mosua egunargiz.

— Ez dozu musika txarra.

— Entzun egizu gura adina, hor daukazu walk-man-a eta liburu bat edo beste denborea emoteko.

— Zelan urtengo dogu hemendik? Lagunduko deustazu?

— Zerbait pentsatu dot, baleiteke asmo zoroa izatea. Zure antz minimoa daukan neska turistaren bat topatuko baneeu... Arazoa azaldu, pasaporteak eskatu eta zure itxurea



zelanbait moldatu geinke. Aduanetan ez dira larregi fijatzen argazkietan. Zorte apur batez...

— Gatzena joko honetan sartzeko prest dagoan neska bat aurkitzea da.

— Gero osteratxo bat egingo dot turistak ibiltzen diran lekuetatik, ea holan... Bestela kontsuladora joan geintek ez eta dana azaldu.

— Ez naz horko jendeaz be fidatzen. Hemen korrupzioa maila guztietan zabaldua dago. Gainera baleiteke inguru hori zainduta egoatea.

— Pentsatuko dogu. Zuk oraingoz hemendik ez urten ezertarako be, ekarri deusudazan erropak probatu; hemen dozuz jateko batzuk be. Denborea ahal dozun moduan emon. Seguruenik ez naz iluntzera arte itzuliko.

— Eskarrik asko danagaitik.

— Oraindino ez.

Kalera urten neban barriro. Apur baten noraezean ibili nintzan gora eta behera. Nire helburua betetzeko leku aproposa egipziar bazarra izan zeitekeala pentsatu eta harantz abiatu nintzan.

Bertako ibilbideetan barruratu bezain laster giro atsegina sortzen eben espezia eta lurrinen

usaina ailegatu zan nire zentzuetara. Momentu batez hara joatera bultzatu ninduan helburua ahaztu eta bitxikeria batzuk begiratu eta eros-teari emon neutsan: Azafran apur bat, sagar-te kutxatxoak... Kale nagusiaren kantoian mota guztietako esentziak eukazan denda batera heldu nintzan arte. Besteak baino maila handiagokoa emoten eban postu harek. Ispilu zabal bat eukan atzekaldean, argi ugari eta hamaika lurrin-olio desbardin bertako potoetan bananduta, dana era ordenatuan antolaturik. Txukun jantzitako saltzaile gazte atseginak gura beste bider igurtzi eustan eskuturra esentzia bategaz eta besteagaz gustokoen aukeratu nengian. Azkenik, danak jatazanez gogoko, hiruna gramotako sei potetxo bete eustazan Sinem, Sultan, Azelya eta holakoetaz. Hainbeste zertarako behar nebazan itaundu eustanean nire haremeko neskentzat zirala erantzun neutsan eta barre egin eban. Azkenean bederatzi gramotako ontzitxo bat jazmin-esentzia erosi neban Idoiarentzako.

Ibilten jarraitu neban gero atzerritar itxurako guztien aurpegieta ondo fijatuz, baina bazar haretan eta negu partean ez ebilen nik espero beste turista. Kanpora urten neban, beraz, eta Eminonu aldean, Topkapin, Mezquita Urdinaren aurreko lorategietan..... luzaro ibili

nintzan, baina alperrik, ez neban aurpegi egokirik aurkitzen. Atsedenaldi baten beharrean nengoan eta handik hur egoan Cağaloğlu bainu-etxera joan nintzan erlaxatzeko asmoz.

Aurreko egunekoa baino askoz txikiagoa zan, eta desbardina. Ez egoan inor barruan, ni bakarrik, eta lurrenak dana beteten eban. Bere eraginez ia ezin zan bainu eta masaia gela osorik ikusi. Gustora egon nintzan hasieran marmolezko plataforma gainean etzunda izerdia dariola, masailariaren zain patxada ederrean.

Handik hamabost minutura bibotedun gizatzar bat sartu zan eskuetan xaboia eta esparztzua ekartzala. Ez nintzan larregi fijatu bere aurpegian, hain erlaxaturik nengoan.

— Massage?

— Yes, please.

Ahozpez ipini, nire atzean paratu zan eta masaia emoten hasi jatan, trebetasun handiz. Bernakaz hasi zan, gero iztarrak eta azkenean lepo aldean hasi jatan laztantzen, lehenengotan emekiro, baina gero indarrez, atzamar puntakaz ia min emoteraino. Samurrago egiteko esan neutsan, baina bazirudien ez eustala entzuten. Gero eta gogorrago ebulan. Bapatean bere belaunak nire giltzurrunen gainean ezarri,

samatik oratu eta indar guztiz sakatzen hasi zan. Gizon hark ni itotzeko ahaleginetan ziharduen. Hil egingo ninduan ezer egiten ez baneban. Atzamarrak bere begietan sartzen saiatu nintzan, baina konortea ia galdu erazo eustan kolpea emon eutsan nire buruari marmolaren kontra. Esku bategaz bere barrabiletara heldu nintzan eta geratzen jatan indar guztiaz sakatuz berak oinaze deihadarra egin eta askatzea lortu neban. Lurrera jausi nintzan zorabiatu-rik. Zutitu orduko barriz eraso eustan gizon eskerga harek, bere beso zabalakaz garri bueltan harrapatu eta airean hartuta bere kontra estutzen hasi jatan. Erdibitu egingo ninduala uste neban. Belarrietatik ia erauzteraino tiratu eta burukada izugarria emon neutsan sudurrean. Ni lurrera botata atzera joan zan eta laprast eginez jaustean lepagainaz marmolezko plataformaren ertza jo eban indar handiz, behegainean hilda edo larri zaurituta gelditzen zala. Nik, zer egiten neban oso ondo jakin barik, kanpora urten, aldagelako gauzak presaka hartu eta zerbait jantzita kalera urten neban arineketan eta estulka sarrerako agurearen begirada harritupean.

Asko kostatu jatan erreku-peratzea. Gorputz guztia minduta neukan eta ia ezin neban berbarik egin. Ezer konprenitu ezinean, zeharo nahasturik nengoan. Zergaitik hil gura izan

ninduan gizon harek? Berehala Idoia etorri jatan burura eta susmo txar batek jota hotele-rantz joan nintzan presaka.

Bertara heldu nintzanean eskailerak saltoka igon eta nire gelako atea kolpe batez zabaldu nebanean ikusitakoak etsipena ekarri eban nire baitara. Dana nahastuta eta hankaz gora egoan, borroka bat egon balitz bezala, baina Idoia ez zan agiri, arrastorik ez. Mohammed-gana jo neban sutan zerbait jakin nahian eta oihuka hasi nintxakon:

- Where is the girl?
- What girl, sir?
- The girl who was in my room!!!
- I'm sorry, sir. I don't know what you mean.

Hoteleko bezero guztiak guri begira egozan harriturik eta berehala alperrik nenbilela konprentitu neban. Nire gelara itzuli eta ohe gaine-an etzunda arazoari bueltak eta bueltak emoten hasi nintzan. Seguruenik Mohammedek zeozer susmatu eta abisatu egingo ebazan Idoiaren bahitzaileak bere bila etorteko, edo beharbada hotelera eroan ginduazan taxistak emongo eutsen gure barri, edo Galata torreko afari erreserba egitean itxitako nire izena jakiteaz baliatuko ziran zein hoteletan gengoan

jakiteko..... Hainbeste aukera egoan! Halan nenbilela, izandako esperientzia gogorraren ondoriozko nekeak jota loak hartu ninduan.

.....

Iluntze partea zan itzartu nintzanean. Akiturik eta etsita sentitzen nintzan. Afaltzeko gogo barik kanpoko freskotasunera urten neban eta Divan Yolu kaleko tabako erre-toki batera sartu nintzan. Ur-pipa bat eta tea eskatu eta hango jendearen artean jazarri nintzan. Lasaitasun eta patxada oso osoko giroa egoan areto ketsu haren barruan. Batzuk taldeka barriketan egozan, pipa bitxi haren tutua ahorik aho pasatzen ebela, beste batzuk bakarka irakurten eta azkenak pipatik erre eta telebista ikusten edo beste barik begirada galdua hango hormetako puntu zehaztu bagako baten kokatzen eben. Tututik zurrupada luzeak hartzen nebazan nik eta kea ia ez zan sentitzen nire biriketan sartzean pipearen barruko urontziaren gainetik pasatu ondoren.

Ez egoan ezer egiterik. Alperrik zan gehiago arduratu eta inorentzat esistitzen ez zan neska baten bila hastea. Giro haretan guztiz etsita nengoala, ezinbestean, hurrengo goizean bueltako hegazkina hartzea erabagi neban.

**NUBIA**





Irene eta biok ezkonbarriak ginan. Eztei-bidaiarako Egipto aukeratu genduan, ondo pentsatu ondoren. Izan be, bera historia irakaslea zan eta berebiziko interesa eukan antxinako zibilizazinoei buruz. Niri ez eustan ardura nora joan, egun atsegin batzuk pasatzea zan nire helburu bakarra eta bazeitekean herrialde ha biok gustora ibilteko modukoa izatea. Hango herrietan zehar ibilteko garraiabide erakargarriena itsasuntzia iruditu jakun, eta agentzia desbardinaren eskeintzak aztertu ondoren Nilo errekan gora luxuzko kuzeroan joatea erabagi genduan. Kairo-ra hegazkinez joango ginan. Han egun pare bat emon ondoren barriro airez Luxor-eraino, eta handik hegoalderantz, Assuan-eraino untziz ibiltea zan asmoa, tarteka Esna, Edfu eta Komombo bisitatuz. Plan boro-bila zan, eta bazirudien danak ondo urtengo euskula. Bazirudien.

Urte haretako abenduaren 25ean, arratsaldez, Kairora iritsi ginan bidaia lasai baten ostean. Uri ha, Afrikako handiena, itogarri samarra zan, kaos hutsa zirkulazino aldetik.

Bazirudien bere hamaika milioi biztanleak batera ebiltzala kalean oinez zein automobiler. Auzategi batzutara ailegatzea ia ezinezkoa zan. Halan gertatu jakun Khan el Khalili aldera hurreratu gura izan genduan. Gure hoteletik haraino bizpahiru kilometro baino ez ziran egongo, baina ia ordubete behar izan eban gure taxiak heltzeko. Sal-erosketarako auzo harek ez eukan Afrikako iparraldeko beste zoko batzuk bezain giro berezia, baina merezi eban ibilaldia egiteak, eta bitxikeria bat edo beste erosi genduan.

Gize-ko piramideak bisitatzea ezinbestekoa zan, Keops, Kefren eta Mikerinos. Ez ninduen larregi inpresionatu; nik basamortuaren erdian imajinatzen nituan, baina errepide nagusitik oso hur egozan, Gize herriaren ondoan. Bertatik Kairoko torre eta edificio handienak bereiztu eitekezan lanbro artean, eta zibilizazio modernoarekiko hurbiltasun harek bere liluraren zati handi bat galdu erazten eutsen erai-kuntza hareei.

Halan eta guzti, Irene entusiasmaturik egoan ilobi ugariak ikusten, inskripzio zaharrak aztertzen, Keops barruko pasadizu estuetan zehar ibiltzen, esfinge handiaren itxurea miresten, eta istorio eder asko kontatu eustazan giza buru eta lehoi gorputza dituen izaki horri buruz.

Niretzat nahikoa zan bera hain pozik ikustea ni neu be gustora sentitzeko. Ordu luzeak emon genduzan han atzera eta aurrera hotele-  
ra itzuli aurretik.

Hurrengo egunean, hogeita zazpian, Luxo-  
rrera heldu ginan. Guztiz giro desbardina  
egoan han. Herri handi samarra izan arren ba-  
kea eta lasaitasuna ziran nagusi Nilo ondoko  
pasealeku luze zabalean. Bertako kaleetan ze-  
har zalgurdiz ibilteko aukerea egoan eta bide  
hori erabili genduan guk Karnak-eko tenplu  
handira inguratzeko. Inpresionatu egiten eban  
bere pasabide eta zutabeen artean ibilteak.

Ez zan gehiegizkoa, halan eta guzti, Niloren  
bestaldeko Tebas inguruaren aldean. Leku ha-  
retan errege eta erreginen haranak, Deir-Al-  
Bahari, Ramasseum, Habou eta beste hainbat  
tenplu eta ilobi txundigarri bisitatu genduzan,  
egun osoa hartzen eban ibilaldi luze baten bi-  
tarteaz. Tebas ganeko mendi gailur altuenetik  
ederto bereiztu zeitekean Nilo ibarraren eta  
beste guztiaren arteko kontraste handia. Bate-  
tik, errekearen alboetan freskotasuna, berde-  
gunea, soloarte, lur goxoa. Urertzetik apur  
bat aldenduta, barriz, deus ez, harea, harriak,  
legorgunea, basamortua. Hodeiertzaren mutur  
batetik bestera irudi bera.

Abenduaren hogeita zortzigarren gauean «Sethi I» luxuzko untzian egin genduan lo, hegoalderantz zuzentzen ginan bitartean. Hasieran hango egoerea hobezina iruditu jakun, alde guztietatik erosotasunak, morroiak, gidariak, xehetasun txikienak be kontutan hartuta... Hurrengo egun bietan Esna, Edfu eta Komombo-ko tenpluak miretsi genduzan, eta apurka-apurka nekatuz joan ginan kruzeroko goi-mailako giro eta larregizko kortesia eta zuzentasunagaitik. Horregaitik hartu genduan Assuan-era helduz geroztik geure aldetik ibilteko erabagia. A ze erabagia!

Assuan-eko lehenengo eguna urte haretako azkena izan zan. Goizean goiz herri liluragarri haretako Nilo ondoko ibilbidetik paseatzen genbiltzala Abdullah izeneko nubiatar baltz bat hurreratu jakun falukazko txango interesgarri bat eskeiniz. Aproposa iruditu eta berehala baietza emon geuntsan.

Hamarretan geratutako lekuan gure zain egozan gazte bi beluntzi txiki eta txukun haretariko bategaz. Nubiatarrak ziran eurak be, Assuan aldeko antxinako Nubia-ko biztanle baltzen ondorengoak. Egipziarrak beste noiz-bait sarraskitutako hegoaldeko herri haretakoei buruz gauza asko esaten ziran, besteak beste sexu aldetik munduko gizon dohatsue-

nak zirala. Irene eta biok txantxetan ibili ginan kontu ha zala eta. Txantxetan.

Haizearen laguntzaz ugarte txiki eta handien artean ibili ginan bueltaka paraje eder eta bitxi haretan. Lehenengo Elefantina-ra joan ginan, bertako Nilometroa eta lorategi koloretsuak ikusi genduzala. Gero Kitchener irlarantz jo genduan bere jardin botaniko dotorearen arbola eta landareen artean paseatzeko. Aga Khan-en mausoleoa kokatuta egoan mendixkara be joan ginan gamelu ganean... eta azkenik erreka bestaldeko nubiatar herrixkara joan ginan zeozer jatera Abdullah-en etxera. Zirudienez, gizon ha falukadun eta gameludun nubiatar guztien buruzagi modukoa zan eta tratu eta negozio guztiak bere onespengaz egin behar ei ziran. Tratuak eta negozioak.

Bazkari ona izan zan, oparoa, txango eder hari amaiera emoteko aproposa. Tea edaten genduan bitartean Abdullah-ek, bere abots kraskatuagaz, gauerako proposamen berezia egin euskun. Urteko azken gaua izanik, bere adiskide batzuk jai handia prestatuta ei eukien handik ez oso urrun, basamortuan apur bat barruratuta. Esan euskunez nubiatarrak eta gure moduko beste atzerritar turista lagun batzuk egongo ginan jai-giro ederrean. Eskeintza tentagarria iruditu jakun, gure luxuzko untzian

prestaturik eukiena baino askoz gehiago, eta onartu egin genduan. Hamarretan «Sethi I»-en aurrera gure bila etorriko ziralakoan geratu ginan.

Arratsalde osoa geunkan artean aprobetxatzeko. Gure gida-liburuan aitatzen zanez Asuan-eko gauza miresgarrienetarikoak iluntzea leku egoki batetik ikustea zan. Ikuspegi aproposena «New Cataract» hotelaren «Txoko klasiko» zeritzonetik egoana ei zan. Arratsaldea aurrera joian eta hara jotea erabagi genduan jakinminez. Oso hotel dotorea zan, goi-mailako jendearentzakoa, moketa leku gehienetan, egur landuzko ornamenduak nonahi, zerbitzariak oso ondo apainduta uniformeaz, bezeroak ederto jantzita...

Sarrera-hall handia zeharkatuta kanpoko terrazetara urteten zan, eta seinaleei jarraituz berehala heldu ginan txoko klasiko ospetsu hartara. Erreka ganeko azken muturrean grada batzuk eraikita egozan, tribuna moduan, dana bedar artifizialez estalduta. Une jakin baten, eguzkia ezkutatzeko puntura hurreratzen egoala, Mahler-en musika guztiz tonu ozenean hasi zan entzuten bozgoragailuetatik. Bitartean, jezarteko espazio guztia beteten eben turista hareek, gehienak edari-koktela eskuartean, traszendental edota katartisatu itxurea ipinten

eben ikuskizun eta entzunkizun hareen eraginez. Opera agerpen hunkigarri baten azken momentuak bezalakoxea zan egoera ha. Azkenean txalo beroak bakarrik falta izan ziran, eta eguzkia Nilo, palmera eta dunen atzean ezkutatatu ondoren, apurka-apurka danak bere jezarleku pribilejiatuak itxiz joan ziran hoteleko kafetegira zerbait edatera joateko.

Ikuskizun bikotx haren ostean, terraza baten te baltza hartu bitartean, herriko kultura zentruan arratsaldero egoten zan Assuan aldeko folkloreak erakusketa ikustera joatea erabagi genduan.

Ikusle gehienak bertakoak ziran, eurentariko asko estudiante itxurakoak, eta nahiko zaratsuak, izan be. Bapatean oihuka edo txaloka hasten ziran, itxurazko arrazoi barik, eta tarteka irrintzika be bai, arabiar emakumezkoak egin ohi daben era berezi horretan. Ikuskizunen artean antzerki laburrak, dantzak, kantuak eta bapateko bertso saio moduko zerbait, ikuslegoaren barre algara edota txaloak eragiten zituana. Antzezleen artean arraza nahasketak, nubiatar neska baltzak euren edertasunagaitik nabaritzen zirala.

Saioa amaitu zanean minutu batzuk falta ziran hamarretarako eta pixkanaka hurreratuz joan ginan Abdullah-egaz lotutako lekura.

Erreka ertz baketsu haretan, ilargiaren islada ur azal barean, ixiltasun erromantikoz inguratuta, Irene eta biok musukatu egin ginan, azken aldiz musukatu be. Azken aldiz.

Hamarretan puntuan nubiatar mutil bat agertu zan land-rover baten barruan, ea Abdullah-en gonbidatuak geu ginan itaunduz. Baietz erantzun eta automobilean sartu ginan. Kilo-metro batzuk egin genduzan halan, Philae ondotik errekearen bestaldera pasatu ginan arte. Handik aurrera land-roverra itxi eta gameluganean jarraitu behar izan genduan basamortu aldera joaz bide ezezagunetatik. Gitxi gora behera ordu erdiren buruan jaigunera heldu ginan, hare artean montaturiko hogeit bat metro zabalerako kanping-denda itxurako estruktura handi bat zan.

Gizonezko baltz ugari agiri ziran han barruan, baina emakumezkoak ez. Gauza bitxia zan, kaleetan be oso gitxi ikusten ziran, bazirudien non edo non ostenduta gordeten ebezala. Neska bakarrak ipartar itxurako azal zurbileko ulehori taldetxo batekoak ziran, mutil batzuk lagunduta. Gure zain ei egozan jaiari hasiera emoteko; beraz, Abdullah-en ongi etorria jasota, luzatu barik ekin egin geuntsan jan-edanari danok zirkuluan jezarrita.



Dana gozoa zan. Arrain desbardinak, era askotako sandwich-ak, datilak... ederto sartzen ziran ardaoaren laguntzaz. Bitartean musika-riak jo eta ke giroa alaitzen. Gaueko hamabiak berehala heldu ziran, eta Abdullah-ek burrun-tzaliagaz lapiko handi bat joaz urte barriaren etorrera aldarrikatu eban berotuz eta alaituz joan jai giro haretan. Berotuz eta alaituz.

Handik aurrerakoa neurritz ganekoa, zorarena izan zan. Edan eta edan, zer irunsten genduan jakin barik, bedar aluzinogenoak ahoan erabili, gure eskuetara etorten zan edozein zigarro klase erre... eta dantza egin, leher-tu arte dantza egin. Nubiatar eskuluzeak neskei ahal zan guztia ikutzen saiatzen ziran, gehienbat lodienei, barre algara eta oihuen artean. Barre eta oihu.

Luzaro barik zeharo nire onetik atarata nengoan, erre eta edateari itxi barik pozarren sentitzen nintzan. Zutik egoteko gauza ez nintzala, lurrean etzunda nubiatar hareetariko batzukaz bromak egiten nituan nesken prezioei buruz, ganadu tratuan ibiliko bagina bezala. Bromak.

— I give you three camels for your girl.

— I think you should pay at least six. Look at her strong legs.

— Four camels!

- Five camels and a half!
- Five camels!
- O.K.!

Eta barre eta barre egiten genduan kopakaz topa eginez. Gau haretaz ez dot besterik gogoratzen. Ireneren kaderen mogimenduak eta bere aurpegiko alaitasun keinuak dira akorduan ditudan azken gauzak.

Hurrengo egunean arratsaldeko laurak ziran nire erlojuan itzarri nintzanean. Bakarrik nengoan denda barruan, inoren ez ezeren arrastorik ez. Burua lehertzeko moduan neukala, ozta-ozta zutitu, kanpora urten eta bost gameluren begirada patxadatsua baino ez neban aurkitu.

.....

Sei urte pasatu dira harrezkero, sei urte luze. Gabon guztietan itzuli naz Egiptora ha gertatu zanetik, urtero bisitatu ditut Kairo-ko piramideak, Luxor aldeko eraikuntzak, Esna, Edfu eta Komombo-ko tenpluak, urtero mirestu ilunabarra Assuan-eko «New Cataract» hoteleko txoko klasikotik, eta urtero ospatu dot urte bariaren etorrera nubiatar jai baten barruan basamortuaren sarreran...

Orain bost urte Michelle-gaz etorri nintzan, gero Ruth-egaz, hurrengoa Bianca izan zan... Askok ikasi dot denbora honetan bizitzari eta negozioei buruz. Egipton egin daitekean inbertsino onenatarikoa gameluna da, gero eta ugariagoak diran turista kapritxosoei euren ibilaldi abentureroetan alokatzeko proposak, edo Sudan-eko trafikatzailerei marfilaren truke eskeintzeko errentagarriak.

Aurtengo uda honetan London-en nago nire ingelesa hobetzen akademia baten herrialde askotako estudiante gaztez inguratuta. Badago nire klasean Natassa izeneko ulehori potolatxo begiko bat. Baleiteke datozen gabonetarako planik ez izatea. Itaundu egin behar deusat.



**POLE-POLE**



— Gillman point.

David mendi-gidariaren abotsak adierazten ebanez Kilimanjaroaren lehenengo tontorrera, Gillman gailurrera, heldu ginan. Goizeko bostak ziran eta ez zan tautik be ikusten. Davidek patxada handiz zigarro bat pizten eban bitartean Uve eta biok jezarririk eta burumakur, arnas-estuka goiera haretan ez egoan oxigenoa gureganatzen ahalegintzen ginan alperrik. Urontzitik zurrutada bat hartu eta ia segituan botaka egin neban ez dakit zenbatgarren aldiz. Goikaldeetako gatxa ordurarte sekula ezagutu bagakoa nintzan eta benetan desatsegina zan, burua leher egiteko moduan eta sabel aldea larri-larri sentitzen nituan. Kibo aterpetxetik gu gengoan aldera astiro-astiro hurreratzen linterna askoren argiak ikusten ziran, aldatzean gora xahukako ilara luze bat osatuz. Daviden abots lasaia barrero entzun zan:

— Shall we go on or back?

Aurrera ala atzera, haxe zan hartu beharreko erabagia. Gengozan 5685 metroetatik Uhuru tontorraren 5895etara ordu biko ibilaldi neketsua gelditu arren, Uve eta biok alkarri begiratzea baino ez zan beharrezkoa izan zailentzarik ez egoala konturatzeko. Ozta-ozta zutitu eta Afrikako gailurrerantz abiatu ginan Daviden atzetik.

Gorputz oinazea zelan edo halan ahazteko, Kilimanjaro aldera heldu aurretik egindako gauzetan pentsatzeari emon neutsan, eta Adi-Sababa-ko irudiak bururatu jatazan desordenaturik: Alde guztietan agiri zan pobrezia, txabola arteko gizon miserableen agur beroak, era guztietako akastunak, begibakoak, hankamotzak, besamotzak, eskaleak, multzokako ume oinuts jatorrak aurre-atze-ondotik itaunka gelditu barik, gehienen janzkera zarpaila, Supermanen mozorroaz ezin hobeto jantzitako ume bakartia, «American condom» saltzailea, turistarik eza, munduko neska politenen irribarre herabetiak...

— All right? No problem. Don't worry, it's just the altitude.

Uve belauniko botaka egoan eta David bere ondoan, eskua sorbaldan ezarriz, ez arduratze-



ko, beste barik garaiera handiegiaren ondorio kaltegarriak zirala esaten eutsan.

Aurrera jarraitu genduan. Alperrik zan alkarri berba egiten saiatzea. Abotsa mozkorren modukoa geunkan, mihina trabatu egiten jakun eta ezin geuntsan batabesteari ulertu. Beraz, nire oroitzapen desordenatuetan murgildu nintzan barriro be.

Tanzaniako Karatu herrixkako gau giroa ikusitako gauza harrigarrienetarikoa izan zan. Gorongoro eta Manyara parke naturalen artean kokatuta egoala, sasi-ostatu txiro eta zikin baten egokitu nintzan gau bat pasatzeko asmoz. Handik metro batzutara herritarrak euren akelarre berezia eratzen eben. Pintura, olio eta edozelango burdina ugertuzko ontzietan itxura susmagarriko edari bat prestatzen eben eta ha edan ondoren, gizon zein emakumeak, barre algara eta oihi egiteari emoten eutsien ordu batzutan, batzuk tente, besteak balantzaka eta azkenak lurrean altzatu ezinda, danak begiak gorri-gorri eginda, zeharo bere onetik urtenda. Neuri be eskeini eusten edari ha, eta euren artean lasai ibilteko esan, Tanzania herri bakezalea zala eta.

Gorongoro parkearen edertasunaz be gomutatu nintzan, kilometrotako krater eskerga haren barruan basapiztiak euren aisiara eta goga-

ra ebiltzan; ñuak, zebrak, bufaloak, antilopeak, flamenkoak nonahi. Izkutuago lehoiak, elefantek, hipopotamoak, errinoak... Kraterraren sarreran masai gazte taldea turisten zain argazkien truke zeozer jasotzeko esperantzaz. Esnea eta odola baino edaten ez ei daben masai mirestu eta mitifikatuak, beste baltz guztiak lurra lantzeagaitik mespretxatzen dabezanak, gartzelan sartu ezkeru tristura eta askatasun eza-gaitik hiltzen ei diranak... Batzuk belarrietako zulo handietan ohizko apaingarrien ordez pelikula-ontzi baltzak eroezan, Arusha-n argazki eske ikusiriko beste batek Adidas boltsa baten gordeten ebazan bere oinetakoak...

— Pole-pole.

Davidek bere hizkuntzan apurka-apurka ibilteko esaten euskun. Goiza urratzen hasita egoan eta zeharkatzen genbiltzan glaziarra argi-ago ikusi zeitekean. Halan eta guzti ezin asmatu oinak edur arteko aztarnetan ezartzera-koan eta sarritan jausi egiten nintzan edan bagako mozkor itzel haren ondorioz, bertan etzunda lotan geratzeko gogoia etorkidala, bai-na hantxe egoten zan beti David jagolea gero eta gitxiago falta zala esanez arengatzeko.

Arusha-ko atso fruta saltzailearen aurpegia etorri jatan burura. Haserretu egin zan argazkia egin gura izan neutsanean eta biraoka hasi zan inguratu jakuzan pertsonen barreak eraginez. Bapateko itzultzaile batek adierazo eustanez, animaliak fotografiatu nahi banituan parkeetara joateko, bera ez zala animalia, eta haren moduan ulertu ez neban beste hainbat gauza. Handik pasatzen zan gizon batek turistok argazkiak gauza txarrei bakarrik egiten geuntsezala leporatu eustan, eta berba hareek mindu egin ninduen.

— Uhuru peak!

Bertan egoan, azkenik, goreneko tontorra, Afrikako puntu altuenean gengoan, baina hunkipena sentitzeko adorerik be ez jatan gelditzen eta jezarri egin nintzan. Uve niri begira egoan neke itxuraz eta Davidek beste zigarro bat piztu eban. Eskuman kraterraren barruko glaziarrak ikusten ziran, ezkerraldean izotzezko horma handi batzuk, eta behean lainoa besterik ez, itsasoaren moduko laino geruza ho-deiertzeraino.

Hara heltzeko lau etapa egin genduzan, bakoitzean mila metroko desnibela igonez eta ingurugiro oso desbardinak ikusiz, lehenengo oi-

hana, gero zelaiak eta landareak, azkenean basamortua, hautsa, harriak... Mandara, Horombo eta Kibo aterpetxeak.

Davidek onena lehenbailehen jastea zala esan eban. Horombon egin behar genduan lo gau haretan. Ahal bezala zutunik jarri, jakineko argazkiak egin eta beherantz abiatu ginan makaldurik eta balantzaka.

Kontrako bidean aurkitu genduzan mendizaleen aurpegiak penagarriak ziran, inork ez eukan agur egiteko gogorik eta gu adorea emetoko berba zuzpergarriren bat esaten saiatzen ginan.

Handik ordu batzutara, gaua pasaturiko Kibo aterpetxera ailegatutakoan, bertan lagatako gauzak hartu eta gorputza hotzikaratan beherantz jarraitu genduan luze barik, Horombora albait lasterren heldu nahian. Jasten ginan neurrian ondoeza desagertuz joian apurka-apurka eta Kibo-rantz zuzentzen ziran porteatzaile jatorrei «Jambo» agurra bueltatzeko adinako kementa hartzen genduan, behintzat.

Horombo aterpetxera heldu ginan, azkenik. Bertan gorantzakoak eta beherantzakoak alkartzen ginanez, dana beteta egoan eta batzuri porteatzaileentzako barrakoietan sartzea tokatu jakun, eurok bertatik urten eta kanpingenda batzutan moldatu behar izan ebela. Ha-

lakoia zan han egoerea, lehentasuna atzerritar mendizaleok geunkan, gero gidatzaile nagusiak eta azkenik porteatzaileak. Ia gure esklabuak zirala esan zeitekean. Guk dolarrak ordaindu eta besterik ez, eurak eroaten ebezan motxilen eta janariaren zama astunak lepoan, eurak gertatu jatekoak sasi-sukaldean, baita txabola-jantokira eroan be, laurehun dolar ordaintzen ebenei amantal zikina ipini mahai ganean eta besteoi ezer be ez. Amaitutakoan dana bildu, garbitu eta euren auzoan, «porter-quartier»-ean alkartzen ziran barriketan edo kantuan egiteko suaren inguruan, gugaz bestelako hartu-emonik izan barik.

Iluntze haretan ohizko afari oparoa izan genduan: zopea, haragia, patatak, azak, azenarioak, frutea, tea... eta irribarre zabaleko ume baltzaren argazkia ekarren «blue band» margarinea.

Afalostean Davidi aldez aurretik zehaztutako diru kopurua, berrehun dolar pertsonako, ordaindu, igoera haretan lagun suertatu jatan Uve-ri agur esan eta deskantsatzera joan nintzan. Hurrengo egunean Moshi herriraino jatsi behar neban eta YMCA hotelean lo egin ondoren Mombasa alderako autobusa hartzeko asmotan nengoan.

.....

Tanzaniako Moshi-tik Keniako Mombasa-ra joateko autobus bi hartu behar izan nituan, mugan nahitaezko geldiuene luzea egin nebala. Horri esker ezagutu neban Taveta-ko merkata. Justu egun haretan tokatzen ei zan salerosketarako hileroko egun handiena eta jendetza handia ebilen batetik bestera. Keniar andreen arropen kolore biziak nagusi ziran azal baltze-koak baino ikusten ez ziran leku haretan. Emakumezkoak, saltzaileakaz eztabaidatu ondoren, boltsa eta pakete gero eta handiagoak egiten ebezan erosketekin eta autobusetarantz abiatzen ziran. Honeek era sinesgatxean kargatu eta urteteko ordu zehatzei jarraitu beharrean, bete ahala hasten ziran martxan. Halantxe jazo zan nire autobusagaz be. Txartel saltzaileak esan baino hiru ordu berandago urten eban Taveta-ko estazinotik Mombasa-rantz.

Bide luze baina interesgarria izan zan. Autobusa astiro joian, karga handiak eta bideko asfaltorik ezak derrigortuta. Tarteka poliziaren kontrolakaz egiten genduan topo eta nik lehenengotan lar ondo ulertzen ez neban usadioaren arabera, bidaiari batzuk jatsi, kontrolaren ondotik oinez pasatu, eta metro batzuk aurre-ago barrero igoten eben. Gero esan eustenez, Kenian galerazota dago bidaiariak autobusetan zutik joatea.

Bidean Tsavo parke naturala zeharkatu genduan mendebaldetik ekialdera. Autobuskideen noizbehinkako zurrumurruak eta harridurazko abotsak motorraren zaraten monotonia apurtzen eben piztiren bat kaminoaren inguruan agiri zan baktotxean. Beste leku batzutan hain urriak diran elefanteak ugari ikusi genduzan ehiztari furtibo arriskutsuz beterik ei dagoan parke haretan.

Autobusak geldiune bat egin eban, jendeak eskatuta, gura ebanak bere beharrak egiteko. Berehala eratu zan bide ertzean gizon lerrokada bitxia, amerikar turista zuri bat, trajedun masai bat leinu horretako eskuturreko tipikoa-kaz apainduta, bere ohizko tapaki gorriaz jantzitako beste masai bat, erloju oso modernua eukana, herritar arruntak, ume bat edo beste... Irudi ikusgarria autobusaren lehiatilatikoa, hain izaki desbardinak gauza bera era berean eta batera egiten.

Mombasara heldu ginanerako gaua zan. Ez zan ordu aproposena lo egiteko leku bila has-teko. Azkenean, buelta ugari emon ostean «Splendid Annex» hotelean aurkitu neban gela librea, eta goreneko pisuko jantokian afaldu ondoren lotara joan nintzan.

Hurrengo egunean, goizez, biharamunean Lamu irlara joateko abioneta txartela eskuratu

neban agentzia baten. Izan be, Mombasa eza-  
gutzeko egun bat eta gau bat nahikoa zirala  
neukan entzunda eta Kilimanjaroko jipoiaren  
ostean Lamu-ren moduko leku baketsu eta  
eder baten deskantsatzeko gogoia neukan.

Egunean zehar herria apur bat ezagutu, Fort  
Jesus ikusi eta alde zahar musulmaneko kale  
estuen artean ibili nintzan. Giro arraroa egoan  
han, arriskua somatu zeitekean arratsalde par-  
tean; leku gehienetan ez zan ia inor ikusten,  
neska musulman batek hilteko mehatxua egin  
eustan argazkia egiteko keinua egin nebanean,  
begirada eta irribarre maltzurkeko droga sal-  
tzaileak ebiltzan nonahi, «something to make  
you happy» eskeiniz... Ez nintzan seguru sen-  
titzen eta alde egin neban handik presaka.

Mombasa egunez ez jatan lar interesgarria  
iruditu. Gaueko giroari buruz, barriz, gauza  
harrigarri asko neukan entzunda, sexuagaz ze-  
rikusia eukien gauzak, hain zuzen. Beraz, zer-  
bait berezia aurkitzeko esperantzatan hotelera  
itzuli nintzan, deskantsatu, afaldu eta bigarren  
ekitaldirako prestatzeko asmoz.

Gaueko hamaikak izango ziran ostabere ka-  
leratu nintzanean. Dana aldatuta egoan, beste  
herri bat zirudian. Egunargiz jendez betetako  
kaleen ordez ordu haretan ixiltasuna eta ba-  
kardadea ziran nagusi. Ate guztiak itxita eta



ondo babestuta egozan pertsiana, burdinsare, barrote, kandatu eta bestelako itxidura sendo ugarigaz. Horrez gainera, denda askoren sarre-ran guardia egiten zaindaria, beisboleko makilearen antzekoa eskuetan eukiela, batzuk tal-detxoetan suaren inguruan berbaz, besteak bakarka jarrita erdi lo denborea emoten, baina beti be edonori ezer ohostuteko tentazinoa kentzeko prest.

Errespetu handia emoten eban gau-giroak. Une batez hotelera itzultzeko gogoa etorri jatan, baina behin han egonda ezin neikean alde egin pub, diskoteka, klub edo kobazulo hareetarikoei buruz kontatzen ziranak egia ziran ala ez jakin barik. Dirua eta sexua ei ziran gaueko bizimoduaren ardatza. Esaten ebenez bertako neskak lepora salto egiten eutsien atzerritarrei ikusi orduko, eta kanpoko itsasontziren batekoak lehorreratzen ziranean sekulako orgiak antolatzen ei ziran herri haretan. Ha dana egia ete zan jakin behar.

Kale zabal baten «Casbah» zeritzon diskoteka itxurako leku bat ikusi eta sartu egin nintzan. Ez egoan jende askorik. Gizonezko baltz batzuk besaulkietan jezarrita garagardoa edaten. Nik gauza bera egin neban. Emakume bi egozan bikiniz txandaka dantza egiten eszenatoki txiki baten argipean, ikuskizun gisa, hurre-

an. Neska pare bat egoan beste besaulki baten berbetan, baina ez eutsien inori jaramonik be egiten. Mombasa-ko gaez entzundakoa gehiegikeria hutsa zalakoan, edalontzia hustuta, alde egin neban handik.

Apur bat ibilita, ustekabeen, ondoko kale txikiago baten, argiz betetako letrero bat ikusi neban. «TOYZ» irakurri zeitekean. Hurreratu egin nintzan. Sartzeagaitik 60 shilling ordaindu behar zan. Ez zan larregi eta barrero probatzea erabagi neban. Sarrerako gortinak zeharkatu eta batera beste mundu baten barruratu nintzan.

Kasualitate hutsez aurkitutako leku harek pisu bi eukazan. Behekoan neska piloa egoan pista handi baten dantzan arropa guztiz moderno eta sexyakaz jantzita. Bere begirada guztien zama astuna sentitu neban neure ganean. Batzuk keinu lizunak egiten hasi jatazan eta besteak irribarrez. Gogorrarena eginez, nitaz jabetzen zan artegatasuna agertu nahi ez eta goiko pisurantz abiatu nintzan babesleku bila. Han, plataforma argitsu baten, justu beheko pistaren ganean, neska batzuk txandakatu egiten ziran arropa gitxigaz dantza egiteko ikusle desinteresatuen aurrean. Bere inguruko mahai eta jarleku ugariak diskotekako erreserbatu modukoa egiten eben. Atzerritar zuriak natiba baltzakaz

berbetan edota beste zeozertan jarduten eben artean ni bertako bazterren baten kokatuta, egoera begirale ikertzailearen ikuspuntutik aztertzeko asmoz, ahalik eta txoko ilunenean jazarri nintzan, inork deskubrituko ez nindualakoan.

Alperrik, baina, zuri bat ezin zeitekean ikustezin bihurtu hainbesteko balztasunaz inguratutik, eta neska bat berehala hurreratu jatan ondoan jezarteko baimena eskatuz. Zegaitik ez? Azken finean nire asmoa esperientzia barria izatea baino ez zan eta neska haregaz berbetan jardutea interesgarria izan zeitekean. Garagardoa edaten gonbidatu neban. Izena Cathy eukala esan eustan.

Ni gai serioei buruz hitzegiten ahalegindu nintzan, baina bera harira joan zan. Gero eta hurragotik egiten eusten berba bere ezpain umel zabalak. Ea zein hoteletan nengoan eta hara joateko alkarregaz. Bitartean zirriak egiten hasi jatan. Errepaso osoa emoten eustan bitartean nire mosua bere diti handien kontra estutzen eustan. Ez nekian zelan urten egoera haretatik, ezta zertan pentsatu be nire buruarekiko kontrola ez galtzeko. Bideo-pantaila baten emoten eben Charlot-en filmean kontzentratzen nintzan, Gorongoro-ko elefanteen tronpa luzeetan pentsatzen neban, Masaien be-

larri zulatu itsusietan, mugetako sobornoetan, Kilimanjaroko sabel larritasunean, HIES-ak jotakoen gorputz-aurpegietan... Halan eta guzti ezin neikean ha jasan eta komunera joateko gogoia neukala esan neutsan.

Halan une bateko atsedenaldia lortu neban. Ez oso luzea, dana dala, zeren eskusaurako pasabidean sartu orduko neska mordo bategaz topo egin neban aurrez-aurre.

— Are you a businessman?

— Did you come on ship?

Batek lepotik heldu eta kokotea laztantzen eustan bitartean «I want to... I want to...» errepikatzen eustan behin eta barriro keinu lizunak eginez.

— What do you want?

— I want to make love with you!

— Bai, zera..., gero, later, just a moment.

Azkenean lortu neban komuneko atea zeharkatzea. Nire harridurazko aurpegi izerditsua ispiluan ikusi bitartean ha ezinezkoa zala pentsatu neban, amesetan nengoala. Zeozer asmatu behar neban handik iges egiteko, egoera ha larregizkoa zan niretzat, ez nintzan hari aurre egiteko gai sentitzen.

Komunetik urteterakoan lehengo komeria bera. Beste neska batek garritik oratu eta «Do you want my company?» itaundu eustan. Nik beste bategaz nengoala esan eta askatu egin ninduan. Cathy-gana heldutakoan barrero estutu ninduan bere besartean eta ni Lamu-ra bannioian bera be nigaz etorriko zala, autobusez izan arren.

— You are very cold, let's go to your hotel.

Sekula entzun bagakoa nintzan neska bategandik hainbeste proposamen hain denbora gitxian. Erresistentzia froga ha lehenbailehen amaitu beharrekoa zala erabagi neban eta bururatu jatan gauzarik onena neskak ez jatazala gustatzen esatea izan zan. Lehenengotan desengainu itxurea ipini eban, baina segituan lagundu ahal eustala esan, berak baeukala lagun bat... «No, thank you, don't worry about it!». Beste garagardo bat edateko dirua itxi neutsan mahai ganean eta kobazulo haretatik berehalakoan urtenda hoteleko babeslekura joan nintzan bizkor, ia korrika. Nire logelan, bakarrik, suertatu nintzanean lasai hartu neban arnasea.

.....

Hurrengo egunean aerodromora joan nintzan Lamu-rako abioneta hartzeko asmoz. Esperientzia barria zan ha niretzat. Hiru atso germaniar irribartsu eta laurok ginan bidaiari bakarrak, pilotoaz gain. Hegadun kotxe baten barruan legez sentitzen nintzan, espazioa ez zan eta askoz handiagoa. Motorra martxan ipini eta ha aurrera eta gora hasi zanean, bidaia osoan kenduko ez jatan halako korapilo bat egin jatan eztarrian. Andreen irribarrea desagertu egin zan berehala, gehienbat eguraldi txarraren ondorioz kafeontzi ha bapateko saltoak, igoerak eta jatsierak egiten hasi zanean.

Pilotoaren aurpegiak, dana dala, ez eban ezelango ardura edo larritasun kutsurik adierazten. Dana kontrolatuta ei eukan. Txiklea era zaratatsuan jateari itxi barik, esku bategaz kontrol mandoak erabilten zituan bitartean, besteagaz irakurten ziharduan egunkariaren orriak pasatzen zituan. Hiru atsoak, artean, harridura eta bildurraren arteko aurpegikeraz begiratzen eutsien alkarri, eta nik, tarteka hodeien artean ikusten zan kostaldeko koralgune berde ederretan pausatzen neban begirada. «Malindi» esan euskun pilotoak behera seinatuz, gozokiak eskeintzen euskuzala.

Bidaia ez zan oso luzea izan, ordu bi baino gitxiagokoa, eta apurka-apurka Lamu-ko artxi-

pielagora hurreratu ginan. Lurreratzeko pistari kontrabandisten filmetako aerodromo izkutu-  
tuen antza hartu neutsan. Izan be, baso erdian  
ganoraz asfaltatu bagako zuzen luzexka bat  
baino ez zan. Han ez egoan ez kontrol-torrerik  
ez egongelarik ez ezer, egurrezko jarleku ba-  
tzuk lastozko sapai baten azpian baino ez.

Guztiz geratu ginanean uniformeaz jantzitako  
gizon bat etorri jakun ongi-etorria emotera,  
bertako enplegatu bakarra, antza, eta bere  
atzetik mutil gazte mordoa gure motxilak eta  
maletak garraiatzeko bere burua eskeiniz. Zo-  
riona, edertasuna eta Lamu-ko paradisua ziran  
euren mintzagaiak, eta nahiko moderno itxurea  
eukien irla txoko galdu haretako biztanleak iza-  
teko. Gure zain egoan txalupa baten, pistaren  
ugartetik Lamu herria kokatuta egoanera pasatu  
ginan berehala.

Ez egoan asfaltorik inon be eta automobi-  
lentzat ezinezkoa zan bertaraino ailegatzea.  
Horregaitik, kanpotar gehienak airez iristen zi-  
ran. Herrikoak astoa eukien garraiabide nagu-  
si, eta bestela danak oinez batera eta bestera.  
Harek danak lasaitasun giro handia emoten  
eutsan herriari. Kale zabalena, itsasoaren au-  
rreko ibilbidea zan. Hantxe kokatzen ziran os-  
tatu gehienak. Bere paraleloa, «Harambee  
street», komertzioak biltzen zituana zan. Beste

kale guztiak estuak ziran eta gorantz egiten eben ur-ertzetik urrundu ahala muino txiki batera heldu arte.

Etxe gehienak kuadrikulatuak ziran, bizpahiru pisutakoak, goian terraza eukiela. Kanpoko atea zur landuaz ornatuta egozan. Barruko patio eta lorategien inguruan logelak, aretoak, sukaldeak... oso era ordenatuan antolatuta.

Astoentzako ospitaletik hur egoan «Casuarina» ostatua egokia iruditu jatan. Apala izanagaitik oso gisa txukunean egoan apaindurik, benetako etxe bat zan apopiloak jasoteko moldatuta, herriko ostatu gehienak legetxe. Itsasaldera emoten eban terraza bat eukan jezarleku handi erosoakaz. Leku perfektua egun batzutan lasai ezer nekagarri egin barik egoteko, eta horixe egin neban denboraldi haretan, paseatu, inguruak ikusi, ondo jan eta edan...

Manda ugarteia ezagutzeko txangoa egin neban beste atzerritar batzukaz belauntzi baten. Guk geuk harrapatutako arrainak jan genduzan hondartzan. Lemazainak eta mutil gazte laguntzaileak bazkaria prestatu bitartean, elefantosiaren eraginez oina zeharo handituta eukan agureak belak konpondu egiten zituan hareatzen jezarririk. Irlako etxe abandonatuak, itsasadarrak eta bestelako txokomokoak ikusi-



ta, bueltako bidean, agurea ahoan erabilitako bedar berezi batzuren eragin pean, sasoi haretan puri-purian ei egoan «Jambo bwana» abestia kantatzen eta dantzatzen hasi zan, beste untziki-deok lapiko, kubierto eta bestelako tresnakaz erritmoa eroaten laguntzen geuntsala.

Hurrengo egunean terrazatik zerraldo bat ekarren gizonezko musulmanez beteriko untxi txikia lehorreratzen ikusi neban. Portuan arropa baltzakaz estalduriko emakumeak zain egozan. Ailegatutakoan prozesinoan abiatu ziran danak itsasurreko kale nagusitik. Emakumezkoak aurretik, kantuan edota negarrez. Gizonezkoak atzetik zerraldoagaz, danak lagundu nahian.

Shela-rako ibilbidea ederra zan; europar aberatsak erositako etxe eta lursailen ondotik pasatu behar zan, palmondoen gerizpean, loreen usain eta koloreez ornatutako herrixka txukun haretara heltzeko. Handik aurrera kilometroetako basa hondartza luze bakarti bat baino ez zan ikusten.

Jai desfile musulman baten aurrean suertatu nintzan behin. Ehundaka pertsona, gehienak mutikoak, Lamu-ko kaleetan zehar ebiltzan kantuan, dantzan, musikari ugariz lagunduta. Herri haretan islamismoaren nagusitasuna begi bistakoa zan.

Beste behin borroka-dantza berezi bat ikusi neban. Gizon dotore batzuk jezarrita egozan lorontziz apainduriko mahaien aurrean. Alboetan musikariak danborrak, platiloak eta txirulak joten ebezan. Guzti horren aurrean ikusleak eraturako zirkuluaren erdian gizon bi makilakaz dantzan. Bakotxak bestearen makileari bizpahiru kolpe gogor emoten eutsazan; gero bietariko bat erretiratu eta besteak ikuslearen arteko baten bati alde eginikoaren makilea eskeintzen eutsan desafio gisa. Zeremonia bardina behin eta barriro errepikatzen zan albo baten pilatzen ziran arropa baltzakaz estaldutako emakumeen begiradapean.

Era lasai honetan igaro ziran, bada, urte haretako nire bidaiaren azken egunak. Alde egin aurreko gauean, ostatuko terrazan jezarrita, azken aldiz ikusi neban ilunabarreko eguzkia palmondoen atzean ezkututzen, azken aldiz beluntziak lehorrera hurreratzen zeruaren azken ertzeko gorritasunetik igesi, eta Lamura, Keniara eta Afrikara beste noizbait itzultzeko asmo finkoa hartu neban.

# **NIRVANA**



Benares-en, 1986ko Abuztuaren 12an.

Zelan zagoz, Sara?

Benares-etik, heriotzearen uritik bialtzen deusut hortik alde egin aurretik agindu neutsun eskutitza.

Zu ondo egotea espero dot. Neure buruaz ezin dot gauza bera esan. Makalik nabil, oso makal, gauetan ia ezin dot lorik hartu, ohean bueltaka ibiltzen naz denbora guztian, sukarrak, izerditan, hotzikarakaz, bihotz taupaden erritmo bizia sentituz. Hamar kilo baino gehiago galdu ditut etenbagako beherakoaren ondorioz. Ohe ganean biluzik egiten dot lo, bentiladorea martxan dagoala, baina ezin dot bero itogarri honen kontra ezer egin. Hoteleko arduradunak malariaren ondorioak dirala esan eustan. Ospitalera joan nintzan. Ez zan oso leku txukuna, bero handia egoan, sugalinda moduko mamarruz beteta egozan hormak, saguak pasatzen ziran korrika noizean behin... Medikak, bere aurpegiko keinuak besterik adierazo arren, ezer larririk ez neukala esan eta pas-

tila mordoia errezetatu eustan, egunero dozena bat, baina alperrik, ez dauke eraginik nire osasunean.

Lerro honeek idazteko ahalegin handiak egin behar izan ditut, baina zuretzat dirala pentsatzeak adorea emon deust. Zertxobait jan ondoren, beti gogo barik, espezia ugarien usainak nazkatuta, hobetotxoago sentitzen naz eta une hori aprobetxatu dot zeregin honetarako.

Zure ondotik alde egin nebanean zerbait desbardina, beste esperientzia handiren bat behar nebala, mundua ezagutzeko gogoia neukala esan neutsun. Horregaitik etorri nintzan India-ra zu hor itxita. Honetarako prest ez nengoala konturatu naz, berandu konturatu be. Ahaleginak egingo ditut orain arte pasatutakoak kontatzen.

Lehenengoz, hegazkinaren eskalaren ondorioz, Pakistan-go Lahore-n egun pare bat emon beharrean suertatu nintzan eta uri horrek zeharo inpresionatu ninduan, agian nire lehenengo urteera serioa izateagaitik.

Aireportutik urten bezain laster taxista piloia hurreratu jatan arrapaladan urigunera eroateko euren zerbitzua eskeiniz. Ia borrokan ebiltzan euren artean. Bere ibilgailuak ez ziran ohizko taxiak, motordun rickshaw-ak baino: motorra eta gurdi antzeko estruktura bat hari

lotuta. Handik hotelera sinestezinezko trafiko nahastea, garraio mota guztiak: bizikletak, motorrak, autobus zaharrak, taxiak, richshaw-ak, gurdiak, astoak... danak batera klaxona joten edota oihuka, gitxi gorabehera ezkeraldetik gidatuz eta edozein lekutatik aurreratuz. Oinezkoak be alde guztietatik, espaloirik ez, semafororik ez, asfaltoa tarteka baino ez... Larregi holako gauzetara ohitu bagako nire begientzat.

Urian bertan denda gisa antolatutako txabola miserable piloa egoan, bata besteari dautsala etenbako lerroak osotuz. Saltzaile guztiak deika eta keinuka eurakana hurreratzeke eskatuz. Kanean, zabor artean, lo egiteko edo atsedeen hartzeko ohe piloa alokairuan, zenbaitetan agure zahar txiroak etzunda, dana lohi, ustel usaina dariola. Ia ez zan emakumezkorik agiri. Bibotedun gizonak, barriz, alde guztietatik. Leku baten gelditu ezkeren jende piloa inguratzen jatan begira; ibiltzen hasi eta danak nire atzetik, ikuskizun harrigarria bainintz. Ostatu arrunt baten egon nintzan. Leku guztietan legez, bero itzela egoan bertan, eta espezia usainak, sargoriagaz nahastuta, zentzazio itogarria areagotu egiten eban.

Suposatu daikezunez kolpe handia izan zan niretzat hirugarren munduarekin halako bapa-

teko kontaktu bortitza, baina aurrera jarraitu neban.

Lahore-tik Delhi-ra joan nintzan. Bertan oso denbora gitxi emon neban, zeren Indiako herriak ezagutu aurretik Nepal aldea bisitatzeko gogoia neukan.

Indiako uriburuan egun pare bat baino ez neban emon. Nahikoa izan ziran, baina, Delhi zaharraren eta barriaren arteko kontraste handiaz jabetzeko. Alde zaharrea miseriarik, txabolak, zikinkeria, hatsa, jendea ortozik, janzkera zarpailakaz, diru eske... Alde barria, osterak, guztiz kontrakoa: etxe handiak, bankuak, kafe-tegiak, hotel dotoreak ikusten ziran nonahi. Dana dala, gehiena kanpoko itxurea baino ez zan. Kafetegiak oso txukunak eta garbiak ziran, baina sukaldeak eta apur baten begiratu ezkerok... Behin honeetariko baten banana lassi bat eskatu neban, bananagaz egindako batido antzeko gauza goxo-goxo bat, eta badakizu danna irunsi eta gero zer topatu neban edalontziaren barruan? Ba... holako labazomorrotzeko mamarru handi eta higuigarri bat. Pentsatu egizu zelako nazka emon eustan! Hala eta guzti holako gauzetara guztiz ohituta nago honezkero, halabeharrez. Leku baten baino gehiagotan inurriak izan dodaz ohean, apoak dutxan, saguak armairuetan, sugalindak



hormetan. Ez pentsatu esajeratu egiten dodanik, hemengo bizimodu arrunta holakoa da. Baleiteke goi-mailakoena bestelakoa izatea, ez dakit.

Delhi-n ikusiriko gauza interesgarrienetarikoa bat sija talde baten jaia izan zan. Ez nago seguru ezkontzea, bataioa edo zer ospatzen eben, baina ikusgarria zan. Kale nagusian gora orkestra txiki bat joian musika jotzen, beronen atzetik zaldi bat oihal, ehun eta bitxiz guztiz ornatuta, zaldi ganean sija bat aurpegia errezel bategaz estalduta, aurrean eta atzean mutiko gazte bi eukazala. Zaldiaren atzetik sija mordoa, jakineko turbanteaz, oso dotore, bizardun eta serio, andra pilo batekin. Noizean behin, musikearen erritmoaren arabera dantzan hasten ziran alaitasunez, baina serio itxurea galtzeke. Arraza honetakoak badauke zerbait berezia, ez dira beste indiatarren modukoak, beste harrotasun bat, beste duintasun bat dauke. Oso arraroa da sija txiki, ziztrin eta narrazik aurkitzea. Gehienak guztiz kontrakoa dira: handiak, sendoak, dotoreak...

Bueltako bidean Delhi hobeto ezagutzeko asmoagaz geratu nintzan Katmandura alde egin nebanean, baina ez dot uste nagoan egoeraren beste inora joateko gauza izango naganik.

Beraz, Nepal aldera abiatu nintzan. Katmandu harana benetan ederra da. Alokaturako bizikleta baten ezagutu nituan hango herriak. Patan-eko artea mirestu neban, Pashupatinath-en tximinoakaz olgetan ibili nintzan eta umore txarreko meditatzaile horreetariko batek, ez dakit zergaitik, niri biraoka edo jardun eban. Bhadgaon-eko pagoda, jauregi eta zur landuzko etxeen artean ibili nintzan. Kirtipur, Bodhnath, Swayambunath be bisitatu nituan. Everest ikusteko asmoz Nagarkot-era joan nintzan, baina «Monzon» sasoiaren zanez dana lainotuta egoan eta ez neban neure helburua bete.

Ez dakit, Sara, beharbada aspertu egingo zaitut honenbeste xehetasun eta izen arrarogaz. Dana dala, nire agur-eskutitz hau irakurten amaitzeko pazientzia nahikoa hartuko dozula espero dot. Ez naz gehiegi luzatuko.

Katmandu-tik Pokhara-ra joan nintzan. Herri hau ia isolatuta egon da oraintsu arte. Paradisuaren modukoa dala entzun neutsan jende askori eta gogo handiz abiatu nintzan harantz.

Arrazioa eukien hori esaten ebenak. Laku baten ondoan kokatua, Himalayako Anapurna menditaldearen azpikaldean, zelai berdez inguratua, leku baketsua, lasaia, zaratarik eta presarik bagakoa... Paradisua, bai, baina paradisu haretan hasi zan orain nozitzen dodan oinazea.

Mendi-trekking bat egin neban Ram Gurung izeneko mutil gidatzaile gazte batekin. Oso atsegina zan, baina eragozpen handiak geunkazan batabesteari ulertzeko. Interes handia eukan nire bizimoduan eta itaundu eta itaundu baino ez eban egiten. Konfidantza apur bat hartu ebanean eskutik heltzen hasi jatan eta halaxe ibiltzen ginan, enamoratu biren moduan, hango bideetan zehar. Ni hasieran zeharo harritu eta berehala askatzen saiatzen nintzan, baina gero, jokaera ha adiskidetasunaren adierazgarri baino ez zala konturatu nintzanean, egoera harek sorrerazten eustan deserosotasuna gaudituz joan nintzan apurka-apurka.

Oso leku ederretan ibili ginan, baina mendian galdutako herrixka hareetan zelako miseria egoan ikustea gogorra izan zan niretzat. Toki askotan ia ez eukien zer jan, umeak eurentzako ezezagunak ziran gaixotasunakaitik hiltzen ziran, eta bertako biztanleak animalien moduan ibili behar izaten eben zama astunakaz aldatz ugarietan gora eta behera, pisu guztia, zinta baten bidez, bekokian aguantatuz.

Egun baten txabola-etxe hareetariko batera eroan ninduen eta ume gaixo bat erakutsi eustien. Nik ez neutsen ezer ulertzen, baina zirudienez oso makalik egoan eta nigan ipinita ei eukien bera sendatzeko esperantza. Zer egin

jakin barik boltsan neroazan botika simple batzuk emon neutsezan. Agian dana alperrik izango zan. Ez jataz, dana dala, ahaztuko umearen gurasoen esker oneko agurrak alde egite-rakoan.

Gehienbat leku umeletan edota euria egiten ebanean izainak agertzen ziran alde guztietatik, arboletatik jausten ziran buru ganera edo arropetara eta oinetakoen barrura be sartzen ziran edozein zirrikitutatik. Gero mamarru hinguigarri hareek azalari guztiz itsatsita geratzen ziran odola zurruputzen eben bitartean eta ez zan bape erreza kentzen; gatza edo sua behar izaten zan horretarako. Ez eben minik emoten, baina oso zentzazio desatsegina bai.

Ram Gurung-ek arroz a baino ez eban jaten, ez dakit zelan jarraitu zeikean aurrera halako adorea hain elikadura sinpleagaz. Sargori handia egiten eban eta errekatxo ugari jasten ziran alde guztietatik. Niri ura kloratzeko pastilea bota barik ez edateko esaten eustan, baina berak ez eukan ezelango problemarik, organismoa ohituta ei eukan. Halan eta guzti, hain gardenak ziran hango urak... Egun baten ni be edonondik edaten hasi nintzan, eta nire gaixotasuna haren ondorioz eta Pokhara-ko lakuan bainatzen nintzan bitartean edandako uraren ondorioz hasi zala uste dot.

Trekkinga amaitu eta hurrengo egunetan txarto sentitzen hasi nintzan. India aldera itzultzeko autobusean sartu nintzanerako oso makal nengoan. Neure botikak ez ninduen hobeto sentiarazten, baina Benares-era ailegatutakoan ospitalean sendagarriren bat emongo eustelakoan nengoan. Gogorra izan zan benetan bueltako bidaiaria. Kalentura sentitzen hasia nintzan eta autobusa denbora guztian saltoka joian bidearen egoereagaitik. Asfaltatutako zatia oso estua zan eta automobil bi gurutzatu behar ziranean, hasieran bazirudien alkar joko ebela aurrez-aurre, baina azken momentuan txikiak beti kuneta aldera jotzen eban besteari pasatzen ixteko. Dana dala, istripu asko egozan eta bide ertzean jotako ibilgailu suntsitu ugari ikusi zeitekean.

Gau bat muga aldeko herrixka baten pasatu neban, ez naz izenaz gogoratzen. Ondo akorduan daukadana da zelako zabor piloa egoan han inguruan. Hurrengo goizean ezpanak eltxoen ziztaden ondorioz guztiz handituta itzazari nintzan, eurok uxatzeko likidoaz gorputz osoa busti arren. Orduetik aurrera nire osasun egoerea are txarragoa egin zan eta gauero ameskaitz eta aluzinazinoak izaten hasi nintzan.

Benares-en nago, bada, Sara, eta ez dakit hemendik inoiz urtengo ete dodan. Hasieran oso larri eta arduratuta nengoan nire osasun egoereagaitik, baina apurka-apurka lasaituz joan naz, hemengo giro bereziaz kutsaturik.

Herri honetan gertatzen diran gauzak benetan harrigarriak dira. Inon baino agiriago dago hemen erlijinoaren eragina. Benares heriotzearen uria da, baina ez pentsatu hori bildurgarria danik, ez hemengo filosofiaren arabera, behintzat. Indiatarren desio preziatuena, euren ari-mea, hiletan ondoren, suaren laguntzaz, zerura igotea da, etenbako berraragiketekin amaituz eta azkenean Nirvana, goren mailako egoerea, lortuz. Danen amesa Ganges-en bazter honetan hiltea da. Horregaitik ikusi daitezkezen hemen hainbeste agure-atso gaixo edozein txokotan geldi heriotzearen zain. Familiak erreka ondoan eratzen diran suteetan lekua eta egurra erosi eta euren senideak erre egiten dabez. Amaitu eta gero errautsak Ganges-en uretara botatzen dabez. Familiak egur nahikoa erosteko dirurik ez badauka gorpuak erdi erreta botatzen ditu uretara, bele eta saien pozerako. Brahman-ak, umeak eta behiak dira erreten ez diran bakarrak, izaki puroak dira eta. Horregaitik zuzen uretara botatzen dira. Ez da arraroa hemen txakur gosetuak gorpu erdi usteldu

baten haginkada onenak lortzeagaitik borrokan ikustea.

Bitartean jende piloak bere erlijio erritoak betetzen ditu errekearen ertzean: Mantra sakratuaren berbak ahozkatu, uretan hiru bider murgildu, ura edan, haginak garbitu... Egunero gauza bera goizean goiz hasita.

Aspaldion egun guztietan ibilten naz erreka bazterrean holako gauzak ikusten, hilda ala bizirik dagozan jakin ezin daitekean zaharren gorputzen artean pasatuz, erreten dabezan gorpuei suaren eraginez errainak zelan lehertzen jakezan hoztasunez ikusiz. Saltzaileak, eskaleak jadanik ez nabe agobiatzen indar barik eta burumakur paseiatzen ikusten nabenean. Nitaz errukitu egiten dirala esango neuke.

Ez dakit, Sara, hau danau holan, gordintasun honegaz kontatu beharko neuskizun ala ez. Beharbada higuinduta egongo zara honezkero esaten deutsudazan gauzakaitik, baina holakoa da hemengo errealitatea neure begietan.

Bestela ez daukat gauza handirik esateko, Sara, ez dot larregi luzatu gura alperreko jario honegaz. Nekatuta nago, deskantsatu egin behar dot barriro. Baneukazan zuretzako opari batzuk erosita, zeta ederrak, sandalozko irudiak, eskuturreko distiratsuak... Baina ez dakit inoiz emoteko aukerarik izango ete dodan.

Etorkizunak ekarten deustanaren zain hemen gelditzea erabagi dot. Erreka bazterrean jezarritako agure gaixoen patxada bardinaz itxarongo deustat datorkidanari.

Ez dakit zer gehiago esan, eskutitz hau zure eskuetara heltzea eta zuk osorik irakurteko pazientzia izatea espero dot. Ez badogu barriro alkar ikusten nitaz gordeten dozun oroitzapena ona izatea gustatuko litzakit. Jakin egizu zeu izan zarala nire bizitzako gauzarik onena.

Agur.



# AURKIBIDEA

7

HARPA LILURAGARRIA

35

PEI-PEI

63

GALATA TORREA

87

NUBIA

101

POLE-POLE

123

NIRVANA



## **GALBURUA SORTA**

- 1.— «JULIA DIÑOTSUT»  
Julen Arriolabengoa
- 2.— DALILA  
Laura Uruburu
- 3.— UNEKA... GABA  
Miren Agur Meabe
- 4.— BLASIKOREN BEGITANTZINOAK  
Jesus Eguzkitza «Eguzki»
- 5.— MUTIKO BASERRITAR BATEN OROITZAPENAK  
Xosé Neira Vilas. Euskeratzailea: Andres Urrutia
- 6.— PU SONGLING-EN IPUINAK  
Euskeratzailea: Jabier Kaltzakorta
- 7.— EKIALDEKO IPUIN MIRESGARRIAK  
Euskeratzailea: Jabier Kaltzakorta
- 8.— «ANDRA EGIN ZARA»  
Yolanda Elorriaga Iturri
- 9.— IPUIN ARINAK  
Jabier Gorostiza
- 10.— HAKUNA MATATA  
Jon Arretxe
- 11.— ARGILUNAK BEGIETAN  
Lourdes Unzueta
- 12.— ORRIALDEAK  
Andres Urrutia
- 13.— INORTXOK EZER BALEKI...  
Edurne Urkiola

*Hakuna Matata* hitaimitai oinarritutako narratiboa besterik ditzan liburuak deya. Jon Arratxe-basamitarrak, Euskal Filologiari lizentziatua, lehenago be sartu izan da idazle lanetan. Orain arin *Idaz & Aritze* lehiaketa hontan bere lanak irakurlearen artean geratu dira. Ma ta guzti hori, hau da bere lehenengo liburuak. Idazleak egindako osterak dituguz narrazio guztizan inozi nagusi, baina errealitate fikziozuzuz naxta egiten da, bien arteko muga non dagoan ilun gerata arte-raino. Izanburuak berak jatorri hori dauka. «*Hakuna Matata*» Afrikan egiten dute esahili lehiaketa izan «*haua mureki adierazuteko usakara et ala*».